

**IRUÑA ETA TUTERA, BILBAO, DONOSTIA
ETA GASTEIZKO ELIZBARRUTIAK**

BERRI ONA BIZI ETA IRAGARRI GAUR EGUN

**IRUÑA ETA TUTERA, BILBAO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO
GOTZAINEN PASTORAL IDAZKIA**

2007ko GARIZUMA - PAZKOA

SARRERA

I. ZER DA BERRI ONA BIZITZEA?

1. Gure fedea, fede bizia da
2. Lehenengo urratsa: bizi den Jesusekin bat egitea
3. Bigarren urratsa: aurkitutako altxorraren berri ematea
4. Berri Ona bizi eta iragartzeko, Espirituaren gidaritza onartu behar dugu

II. JESUSEN BIZITZA ESPIRITUAK GIDATUTA

1. Jesusen bizitza jendearen artean
2. Jesusen ikasleen elkarteak
3. Jesusek Aitarekin zuen harreman pertsonala
4. Jesusengandik ikasi Espirituaren bideetan ibiltzen

III. BIZITZA EBANJELIKOA ETA GAURKO KULTURA

1. Inkulturazio zaila eta konplexua
2. Ebanjelioa ereitea eta fruitu emateko baldintzak
3. Bizitza bokazio bezala bizi

IV. BOKAZIOA EGUNEROKO ZEREGINETAN BIZI

1. Gure lana
 - a. Ondasunak, lanaren fruitu eta Jainkoaren dohain
 - b. Lan egin, probidentzian konfiantza jarritz
2. Gure familia
3. Gure erantzukizuna guztion ongizateari dagokionez
 - a. Maitasuna, zerbitzuzko jarrera bezala

- b. Txikienen ondoan egon
- c. Hemen jardun, Jaunaren behin betiko etorreraren zain

V. BOKAZIOA ELKARTEAN BIZI

- 1. Familia, oinarrizko elkarte
- 2. Erreferentzia elkarte
- 3. Parroki elkarte

VI. BOKAZIOA JAINKOAREKIKO HARREMAN ZUZENEAN BIZI

- 1. Espiritua landu eta bigundu: ariketa espirituala
- 2. Basamortuaren esperientzia
 - a. Basamortua, prestaketa eta garbikuntza bezala
 - b. Proba erradikalaren basamortua
- 3. Otoitza bizi-iturri bezala

VII. BUKAERA: BIKAINTRASUNAREN BIZITZA HEROIKOA AUKERA ETA BEHARRA GAUR EGUN

BERRI ONA BIZI ETA IRAGARRI GAUR EGUN

SARRERA

Garizuman sartzea, graziaren, bihozberitzearen eta berrikuntza sakonaren aldira zabaltzea da. Espirituak aldi horretara zuzentzen gaitu, Jesus, zegoen misioa betetzeko bere burua presta zezan, basamortura zuzendu zuen bezala. Jesusen urratsei jarraituz, dei egiten zaigu Garizuma hau bere Ebanjelioaganako leialtasuna sendotzeko aldi bezala bizi dezagun: Berarekin Jerusalemara igotzeko prestatu, Berari nekaldi eta heriotzarako bidean lagundu eta berpizkunde aintzatsuaren grazia bete-betean jasotzeko prestatu.

Aukera honetan, Ebanjelioaren arabera gaur egun bizitzera egiten zaigun deia edo bokazioa aztertzeko egokieratzat hartu nahi izan dugu Garizuma aldi hau. Beharrezkotzat jotzen dugu hori egitea, Ebanjelioa, guretzat zein munduarentzat, Berri Ona dela era berritu eta benetakoa sentitzeko. Berri Ona hots egiteko zailtasunak eskaintzen dizkigula dirudien gaurko garai eta kulturaren, zera jakin behar dugu: ez dagoela gaindi ezin daitekeen zailtasunik Ebanjelioak gure bizitzetan ozen durundi egiten badu.

Kontua Berri Ona bizi eta hots egitea denez, egokitzen jo dugu Ebanjelioetara hurbiltzea eta horietatik hautatutako testuak Pastoral Idazki honen edukari lotutako beste testu bibliko batzuekin osatzea. Gure belarriak Jainkoaren Hitz biziari zabalduz egin dugu hori. Horregatik, Hitz hori hartu dugu oinarritzat, geure buruan eta bihotzetan gorde eta hausnartuz, eta guretzat duen esanahiaren inguruan gogoeta eginez. Horregatik eskaintzen dizkizuegun Bibliako testu ugari eta luzeak. Horiexek dira gure idazkiaren bizkarrezurra¹.

Uste sendo hau izan da gure abiapuntua: Ebanjelioa egi eta bizi iturri preziatua dela bai gaur eta bai Jesusen garaietan ere; altxor paregabea dela guretzat eta munduarentzat. Benetan bizi duenak besteei helarazteko eutsiezinezko bultzada sentitzen du, eta halakoaren testigantza sinesgarri eta eraginkor bihurtzen da. Bide bakarra dago bizitzeko: bakoitzak bere bokazioaren arabera, Espirituaren gidaritzapean, Jesusi jarraitzea.

Ebanjelioetako kontakizunen bidez Jesusi jarraituz, Berak Espirituarengan, Aitarenganako erabateko leialtasunean egin zuen ibilbidera hurbildu gara; Berarengan gure salbabide izan den Gurutzearen aintzan Aitaren betiko maitasuna munduari adierazteko gizon egindako Jainkoaren Seme bakarrarekin bat egiten saiatu gara. “*Bidea, Egia eta Bizia*” den Harengana hurreratu gara. Bere Maisu eredutik, geure ibilbide espiritualari buruz hausnarketa egiten saiatu gara, Berri Ona gaur bizi eta hots egiteko.

Ebanjelioa bizi eta hots egin dezazuen laguntza izan nahi duen idazkia eskaintzen dizuegu, beraz. Irakur ezazue bakarka eta taldean, Hitzaren deia entzunez eta zeuon bihotzak beraren ahalmen eraldatzailerara zabalduz. Bihotz-

¹ Itun Zaharreko zein Berriko testu guztiak *Elizen Arteko Bibliaren* 2. argitalpenetik hartu ditugu.

bihotzez opa dizuegu Jesusen Espirituak bidea erakuts diezazuela Garizuma honetan, Ebanjelioaren testigu leiak izan zaitezten eta munduari Pazkoko Berri Ona iragarri diezaiozuen.

I. ZER DA BERRI ONA BIZITZEA?

“Izan zaitezte guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona den bezala”
(San Mateoren Ebanjelioa, 5. kapitulua, 48. txatala)

Jesusek esaldi biribil honekin bukatzen du, Zoriontasunekin hasi eta Zeru-etako Erreinuaren erakargarritasuna sentitzen dutenen jokabidearekin jarraitzen duen hitzaldi luzea. Jokabide honek ez du trikimainarik onartzen, bikain eta santu izateko eta mugarik gabe maitatzeko deia da. Jainkoa bakarrik bada ere guztiz ona, denoi dagokigu bikaintasun hori bilatzea, gure kultura izateari uko egin gabe. Jesusen irakaspenik esanguratsuenetarikoa da, zalantzarik gabe; gizon eta emakume askoren bihotzetan durundi egiten duen irakaspena; Jesusen mezua mendez mende jarraitu nahi izan dutenen iturri eta gidari izan dena.

Santutasun heroiko deitutako honen erakarpen sakonak indarrean dirau gure munduan eta era askotara adierazten da bistako arrazoi batengatik: giza bihotzaren alderdi berezko eta zintzoenari erantzuten dio, nahiz eta, arrazoi askorengatik, kontrakoa iruditu. Kristau-elkartea munduan gatz eta argi izango bada, bizitza heroikorako dei horri erantzunez, Berri Ona, bere aparteko balioegatik, mundu osoari hitzez eta egitez iragarri nahi dion altxor bizi bezala sentitu behar du.

1. Gure fedea, fede bizia da

Tradizioak balio ordezkazina du: jaso dugun eta hezi gaituzten fedearen oinarri historikoa da. Tradizioa sakontasunez ezagutzea, jakinduriatzeko ondare aberatsazjabetzea da. Bere erromesaldian, askotan era mingarrian, gidatzen eta sustatzen duen Espirituaren jarduera garbitzailea aurrez aurre izan duen Elizaren argi eta iluntasunen, leialtasun eta desleialtasunen, asmakizun eta akatsen, eta oraindik indarrean dauden apurketen bide luzea antzematea ere bada.

Baina, tradizioaz jabetzea, batez ere, Jainko bizia barru-barruan sentitu izan duten eta, Hura sutsuki maitatuz, beren bizitzak erabat aldatu dituzten eta maitasun horren testigantza emankorra eskaini duten santuekin aurrez aurre aurkitzea da. Izan ere, eta hauxe da horien irakaspen nagusia, Jesusengandik ikasia: Jainkoarengan maitasun sutsuarekin baino ezin dela sinetsi egiaz.

Ezin ditugu, beraz, elkarrekin nahastu, jaso dugun tradizioaren aberastasunean fedea bizitzea, eta tradizionalki kristau izatea eta kulturalki Elizako kide izatea. Gure artean oso arrunta den kristau izateko modu honek lausotu egin ditzake kristau-fedearen berezko baliotasuna eta bere izaera bizi eta eraldatzailea, neurri batean gure bizitzetan azaldu arren, gure barruan durundi egiten ez duen zerbait bihurtzeko.

Horregatik, kristau-fedea doktrina, errito-jarduera eta arau moralen multzo konplexutzat hartzen du askok; hala ere, fedea horrela ikusteak bere benetako esanahia eta garrantzia galtzea dakar. Fedea bizitzea, beste ezer baino lehen, geure burua ulertzen, besteak ulertzen eta bizitza eta mundua ulertzen laguntzen digun argia jaurtiz, bizitza aldatzen digun eta indarrez betetzen gaituen bidaia espiritualari ekitea da. Bidaia espiritual hau ez da inoiz bukatzen, inoiz buka ezin daitezkeen bezala gure bihotzen erdian ainguratuta dauden bake-, maitasun- eta zorion-irrika sakonak.

Honela begiratuta, doktrinak ez dira norbaitek era pasiboan bere egin behar dituen egien multzoa; Jainkoak ereinda, dagoeneko gure barruan zegoen, zehaztasun handiagoz ala txikiagoz sumatzen genuen eta orain gure bihotzean eta buruan gogor durundi egiten duen eta, horrela argi- eta bizi-iturri bihurtu den zerbaiten egia adierazten diguten errebelazio bizi baizik.

Bere aldetik, jarduera erritualak ez dira tradizioak sagaratutako zeinu eta ekintza aldaezinen errepikapen hutsa, benetako ekintza askatzaileak baizik, arruntasunaren gogortasun, opakotasun eta hutsalakeriatik aterata, sortu gaituen eta osotasunez bizi izateko eta betiko zorionaz gozatzeko dei egiten digun jainko maitasunaren argi, zentzu eta boterearekin lotzen gaituzten ekintzak, hain zuzen ere.

Azkenik, fedea, ez da bizitzatik aldentutako eremua, ezta gutxiago ere; alderantziz, karitatearen printzipio gorenean oinarritutako arau moralen bidez, fededunok zuzentasun eta santutasunez bizi izateko izan behar dugun jokamoldea erakusten digu. Ebanjelioko bideek barru-barrutik irrikatzen dugun osotasunerantz garamatzate, zuzentasun, bake eta maitasunaren bidetik. Horregatik azpimarratzen du Bibliak behin eta berriro printzipio bera: bide zuzenetik ibiltzeak benetako zorionera garamatza eta pertsona guztien onerako da.

Hau guztia honela laburbil daiteke: fedearen egiek Jainko horrek gure izaitean inskribatu duen egia sakona ezagutzera ematen digute; liturgiak berri eta sendotu egiten gaitu, jainkozko graziaren indar askatzaile eta aldatzailea gaurkotuz; azkenik, agindu moralek santutasunaren bidetik zuzentzen gaituzte, bizitzako eta historiako anbiguotasun eta arriskuak gainditzen lagunduz. Horregatik, Berri Ona erreparorik gabe bizitzeak egiara eta biziaren osotasunera garamatza, txarkeria gainditzeko, zailtasun guztien erdian irauteko ea itzarroteko gaitasunari eusteko eta, horrela, mundua eta historia biziaren Jainkoaren maitasunaz bustitzeko eginkizunean buru-belarri aritzeko behar dugun indarra emanez.

2. Lehenengo urratsa: bizi den Jesusekin bat egitea

Hurrengo egunean, berriro ere bertan zegoen Joan bere bi ikaslerekin. Jesus handik igarotzen ikusirik, esan zuen:

– Hona hemen Jainkoaren Bildotsa.

Bi ikasleek, hori entzutean, Jesusi jarraitu zioten.

Jesusek, atzera begiratu eta ondoren zetoziola ikusirik, galdetu zien:

– Zeren bila zabilzate?

Haiek erantzun:

– *Rabbi, non bizi zara? (Rabbik ‘Maisu’ esan nahi du).*

Jesusek esan zien:

– *Etorri eta ikusi.*

Joan, non bizi zen ikusi eta berarekin gelditu ziren egun hartan.

Arratsaldeko laurak aldean zen.

(San Joanen Ebanjelioa, 1.go kapitulua, 35-39 txatalak)

Jesus aurkitzen ez duenak eta Berarengandik dena jakin nahi dugula, Berarekin dena konpartitu nahi duela sentitzen ez duenak ezin du Ebanjelioa bizi, eta are gutxiago besteei iragarri. Joanen testuak erakusten digu, Jesus nola aurkitzen duten eta horrela, geu ere, erakarrita sentitzen gara eta jarraitu egin nahi diogu.

Topaketa baten idatzizko bertsioa da hau, eta topaketa horretan irrika, begirada, mugimendu eta elkarrizketek, Jesusi jarraituz, Ebanjelioa bizi izateko dugun erari buruz galdera egiteko dei egiten digun errealitate bizia osatzen dute. Pasarte hau, Ebanjelioetako beste askoren antzera, irakurtzeaz gain, bere sakontasun eta bizitasun osoan begietsi eta sentitu behar dugu, Jesusekiko bategite aldatzailearen esperientzia horrek, gure ulermena ez ezik, gure izate osoa uki dezan.

Hona hemen San Joanen pasarte eder honen irakaspenetako bat: nahiz eta denok izan gure bizitzetan erreferentzia diren pertsona eta balioak, dena erlatibo bihurtzen dela, benetan erakartzen gaituena egiaz aurkitzen dugunean, bilatzen genuenari bete-betean erantzuten diolako. Horregatik, Joan Bataiatzailearen bi ikasleek, hark Jesusi buruz “hona hemen Jainkoaren bildotsa” esaten diela entzuten dutenean, beren maisua utzi eta, indar ikaragarri batek bultzatuta bezala, Jesusi jarraitzen diote.

Jesusek atzera begiratu zuela, atzetik zetoziola ikusi zuela eta zer nahi zuten galdetu ziela diosku Ebanjelioak. Jesusek atzera begiratu eta gutariko bakoitzari zergatik garen kristau galdetuko baligu bezala da. Beharbada ez genuke berehala aurkituko ohikotik haratagoko erantzun egokirik. Ebanjelioko bi ikasleek erakusten digute bidea. Jesusi ematen dioten erantzuna bizitzari estu lotutakoa da: “*Rabbi (Maisu), non bizi zara?*” Lehenengo eta behin, eta inolako zalantzarik gabe, Maisu esaten diote, zertxobait lehenago beren maisua Joan Bataiatzailea izan zen arren. Harrigarriagoa da oraindik aitorten honen ondorengo galdera: “*non bizi zara?*”.

Bi ikasleen jarrerak “bat-bateko maitemina” erakusten du. Guztiz liluraturuta daude Jesusekin, eta Maisu aitortzen duten ezagutu baino lehen eta, gainera, berehala sartu nahi dute haren etxean, hau da, haren bizitzan. Jesusen erantzuna bat dator ikasleen irrikarekin: “*Etorri eta ikusi*”; era praktikoan, bere bideari jarraituz bakarrik ezagut dezaketela nabarmentzen du. Ikasleek Jesusen bizitzan parte hartzeko gurari bizia dutela ikusarazten digu kontakizunak, Jesusi jarraitu ziotela eta Berarekin egun osoan geratu zirela kontatzean. Elkarraldiak arrasto itzela utzi zuen ikasleen bizitzan, gertatu zeneko ordua bera ere betiko idatzita geratu zelako: “*Arratsaldeko laurak aldean zen*”.

3. Bigarren urratsa: aurkitutako altxorraren berri ematea

Joani entzun eta Jesusi jarraitu zioten bietariko bat Andres zen, Simon Pedroren anaia. Lehenik bere anaia Simonekin egin zuen topo, eta esan zion: «Mesias aurkitu diagu» – (Mesiasek 'Kristo' –hau da, Gantzutua– esan nahi du).

Eta Jesusengana eraman zuen.

Jesusek, begira-begira jarririk, esan zion:

«Simon zara zu, Joanen semea, baina aurrerantzean Kefas deituko zara» (Kefasek 'Pedro' –hau da, Harkaitz– esan nahi du).

(San Joanen Ebanjelioa, 1.go kapitulua, 40-42 txatalak)

Geuretzat gorde ote dezakegu gure bizitza bestelakotzen eta aldatzen duen gauza hain baliotsua? Horrelako zerbait, aurpegieran nabarmentzeaz gain, nahi-taetzkoa da besteei jakinaraztea, bularrak eztanda egingo digula dirudi eta. Benetakako argia den fede bizia ezin da ezkutatu; Jesusek Ebanjelioan dioskun bezala, denok argitzeko egina dago.

Aurkikuntza hark bultzatuta, Andres, Jesus bere bizitzako ardatz berri bezala aurkitu zuen bi ikasleatariko bat, bere anaia Simonen bila doa eta berri handi hori ematen dio: “*Mesias aurkitu diagu*”, eta hori dioenak, Israel herriak mendez mende salbatzaile bezala etorriko zela itxaroten zuena aurkitu duela esan nahi du. Baina kontua ez da horretan geratzen, berri hutsean; aurkikuntza konpartitu eta iragarri beharrak bere anaia Jesusengana eramatera bultzatzen du. Iragarpena ez da albiste baten komunikazio hutsa, albistea guztiz garrantzitsua bada ere; fede biziarentzat, Jesusek ukitutako fedearentzat, ezinbestekoa da ekintzara igarotzea, eta besteak Jesusengana daramatza.

Kontakizunaren azken zatiak argi eta garbi erakusten digu, Jesus biziarekin bat egiteak betiko aldatzen gaituela. Simoni adi-adi begiratzean, Jesus haren bihotzean sartzen da eta, izen aldaketa sinbolikoaren bidez, bere izate osoa ere aldatu egiten du bizitza osorako. Kontakizunak beste hau ere ulertarazten digu: hitzez eta egitez Jesus beste batzuei helarazten badiegu ere, ez garela gu haiek aldatzen ditugunak, Jesusek berak egiten duela hori baizik.

Nola bizi eta iragarri Jesusen lehenengo ikasle hauen fede bizi eta eraldatzailearen esperientzia?

4. Berri Ona bizi eta iragartzeko, Espirituaren gidaritza onartu behar dugu

Besteengan benetan fidatzea da bizitzan gehien kostatzen zaigun gauzetako bat. Are gehiago, besteei gu gidatzen uztea kostatzen zaigu. Gure bizitzako esperientzia nagusi batzuek, esate baterako, ama edo aita izatearen esperientziak batez ere, geure buruaz ahaztu eta beste batzuk, gure seme eta alabak, gure bizitzako gune nagusi bihurtzea eskatzen digute. Esperientzia hauek esparru pribatuari dagozkio funtsean, biziaren gainera sistema –jakintza teknozientifikoa, aberastasuna sortzea eta antolaketa– jartzen duen kultura honetan gero eta arazotsuagoa den esparru pribatuari.

Pertsonen bizitzan, autonomiak gero eta balio handiagoa hartu du, hezkuntzaren, aurrerapen materialaren eta profesionalizatzearen garrantziaren eskutik. Kulturari dagokionez, “bestearen” esku jartzeak gero eta zorabio-larri handiagoa eragiten du, “norbera izatea” ezinbesteko baldintza jotzen baita pertsona izateko eta bizitzan arrakasta edukitzeko. Gero eta nabarmenagoa den norbanakoaren autonomia honek giza harremanak aldatu egin ditu neurri handi batean, batez ere familian, gizarte mailan gehien baloratzen den esparrua bada ere, gero eta eskastasun handiagoa jasaten duen instituzio horretan.

Egoera honetan, Espirituaren esku jartzeaz hitz egiteak nolabaiteko aurkakotasuna eragin dezake, Paulok Jesu Kristo gurutziltzatuari buruz aipatzen ditunaren antzekoa: eskandalua batzuentzat eta erokeria beste batzuentzat. Baina, fedea ezin da bizi benetako haurtzaro espirituala sentituz izan ezik, eta Espirituaren eskua eta gidaritza onartuz ez bada.

Hauxe da, eta ez beste ezer, espiritualtasuna; norberaren baitan biltzera eta otoitz- eta sakramentu-jarduerara murrizten ez den espiritualtasuna, Espiritu Santuaren indarraz bizitako gure bizitza osoa biltzen duen espiritualtasuna baizik.

II. JESUSEN BIZITZA ESPIRITUAK GIDATUTA

San Lukasen Ebanjelioak, Nazaretoko bizitza ezkutuaz ari denean, *haziz eta sendotuz zihoala, jakinduriaz betea zegoela eta Jainkoaren onginahia berekin zuela* diosku Jesusi buruz. Jesusen hazkunde honek bere burua emateraino jarraituko duela erakusten digute Ebanjelioek. Ebanjelioetako kontakizunetan sakon sartzan bagara, haiei gure bizitza irakurtzen utziz, Jesusen ibilbide espirituala argitasun osoz agertzen zaigu. Jesus, Jainkoa Aita deneko kontzientzia bizi eta apartekoaz bustita, apurka-apurka bere bokazioaz jabetzen da argitasun eta sakontasunez, eta nekaldia eta gurutzeko heriotza zain dituen “Jerusalemeko igoerara” bideratzea onartzen du.

Jesusek ibilbide espiritual hori bana ezin daitezkeen hiru esparru desberdinetan garatzen da: jendearekiko harremanean, ikasleen taldearekiko harremanean eta Aitarekiko etengabeko harremanean. Espirituak ikusarazten dizkio bere bokazio original eta apurtezinaren ondorioak, bere ibilbidean ezinbesteko dituen hiru esparru hauetatik zuzenduz.

1. Jesusen bizitza jende artean

Jesus, hango eta hemengo jendearekin elkartzen denean, Jainkoarengana hurbilduko da eta hau hobeto ezagutuko du. Txiroek, gaixoek, emakume kanaanarrak, tenpluan limosna eman zuen alargunak, “*artzainik gabeko ardi*” ziruditelako pena eman zioten pertsonak, ehuntariak, Zakeok eta, erabateko eskaintzaz, bere malkoez oinak garbitu eta bere ileez lehortu, laztanez bete eta lurrin garestiaz igurzten dizkion emakumeak, Jainkoaren aurpegi errukitsua, erabateko doakotasuna eta mugagabeko maitasuna erakusten diote. Aurkikuntza honek behin eta berriro esanarazten dio Jesusi, harrituta eta txundituta:

“*Handia da zure fedea!*”, jendeaz ari denean, eta “*Goresten zaitut*”, erlazio estua duen eta Berarengandik bana ezin daitekeen Aitari hitz egiten dionean.

Espirituaren gidaritzapean jakindurian eta grazian haziz doan Jesus hau erreformatzaile erlijioso handi ere bihurtuko da, maitasunaren Jainkoarengana fedea berbaldi, parabola eta agindu moraletan ez ezik, baita jakintsu, aberats, lege-maisu eta abade nagusiekiko buruz buruko jardueren bidez ere.

Ikus dezagun, jendarteko ibilbide espiritual honen adibide gisa, emakumekanaandarraren pasarte argitzailea, San Mateoren Ebanjelioak kontatzen digun bezala:

Handik irtenik, Tiro eta Sidon aldera aldentu zen Jesus. Hartan, inguru haietan bizi zen emakume kanaandar bat deiadarka hasi zitzaion:

– Erruki zakizkit, Jauna, Daviden Semea! Oinaze gorritan dauka deabruak nire alaba.

Baina Jesusek ez zion hitzik erantzun. Bere ikasleek, ondoraturik, eskatu zioten:

– Kasu egiozu, deiadarka baitatorkigu atzetik.

Jesusek, ordea:

– Israel herriko ardi galduengana bakarrik bidali nau Jainkoak.

Baina emakumea, hurbildurik, ahuspez jarri zitzaion, esanez:

– Lagun nazazu, Jauna!

Jesusek orduan:

– Ez dago ongi seme-alabei ogia kendu eta txakurrei botatzea.

Emakumeak erantzun zion:

– Bai, Jauna, halaxe da; baina txakurrek ere jan ohi dituzte nagusien mahaitik erortzen diren ogi-apurrak.

Orduan Jesusek esan zion:

– Emakumea, handia da zure fedea! Gerta bekizu nahi duzuna!

Eta une hartatik sendatuta gelditu zitzaion alaba.

(San Mateoren Ebanjelioa, 15. kapitulua, 21-28 txatalak)

Kontakizunaren hasieran, Jesus, zegoen lekutik atera egin zela beste leku batera joateko esaten zaigu. Ebanjelioek erakusten diguten Jesusen etengabeko ibiltzearen adibidea da. Apostoluen Eginak liburuan, “bideari” jarraitzen diotenak dira fededunak. Ebanjelioko kontakizunean, Jesus atera egiten da dagoen lekutik, Tiro eta Sidongo lurraldera erretiratzeko. Datuak esanguratsuak dira: Jesusek erretiratu egin nahi du; sarritan saiatzen da hori egiten, zerbaitetan jardun ondoren; jentilen lurraldera erretiratzen da.

Beste hainbat aldiz gertatzen zaionez, ezagutu egiten dute eta erretiratzeko nahiak zapuztu egiten dizkiote. Kasu honetan, deiadarka bere alaba osatzeko eskatzen dion emakume kanaandarrak galarazten dio erretiro hori. Jesusek ez dio erantzun ere egiten. Guztiz atsekabetua dirudi. Bigarren une batean, ikasleek gutxienez jaramon egiteko eskatzen diote; esan diezaiola emakumeari isiltzeko eta enbarazu egiteari uzteko; baina berak ez du ezer jakin nahi emakumeaz eta bere eginkizuna Israel herriarentzat baino ez dela esaten die. Une horretan, emakumea Jesusen aurrean jarri eta ahuspeztu egiten da, laguntzeko eskatuz, arreta eskaintzera behartuz. Jesusek gogor hartzen du; Israel herrikoak seme-alabatzen hartzen dituen bitartean, txakur baten pareko hartzen du ema-

kumea; ez dio kasurik egin nahi. Baina emakumeak ez du etsitzen, eta apaltasun handiz, Jainkoaren erruki eta maitasunaren unibertsaltasunean fede itzela islatzen duen erantzuna ematen dio. Jesusek berehala ulertzen du, emakume eta jentil izateagatik aintzakotzat hartzekoa ez den ama horren fedearen esanahia. Pasarte honek erakusten digunez, Jesusek, ezertarako aintzat hartuak ez direnengan beti harrigarriak eta esanguratsuak egingo zaizkion Jainkoarenganako fedea eta ulermena aurkitzen ditu.

2. Jesusen ikasleen elkarte

Baina, beti berria den Jainkoa aurkitzearen eta bere bizia emanaz Jainko hori iragartzearen bokazioa gero eta indar handiagoz sentitzearen prozesu hau Jesusek ez du berak bakarrik bizi; bidelagun zituen ikasleen elkartearekin, eta batez ere hamabiekin, partekatzen ditu bere bizitza eta esperientziak. Jarraitzen ziotenak bere elkarte zirela esan dezakegu, haiekin hitz egiten zuela bidean, bere esperientziak eta egunero azaltzen zitzaizkion egoerak komentatuz eta horien zentzua aurkitzen saiatuz. Gaur egun erreferentzi taldea, bizitza-azterketarako taldea, fedean heltzeko taldea deitzen dugunaren antzeko zerbaitez talde hura.

Jesusen espiritualtasunaren bigarren alderdi honen adibideak ugariak dira Ebanjelioan, pasarte batzuetan gehiago nabarmentzen delarik, esate baterako, azken afarian eta oinak garbitzean. Ezin dugu Jesus ulertu bere ikaslerik gabe, bere bizitza- eta egitasmo-elkarerik gabe. Espirituak gidatuta jarduten duen gizon honen adibide bat ikusiko dugu ikasleen bidez, San Joanen Ebanjeliotik hartutako pasarte honetan:

Jesusen hitzok entzutean, haren ikasleatariko askok esan zuen:

«Onargaitza da mezu hau. Nork jaramon egin?»

Jesusek, ikasleak marmarka ari zirela oharturik, esan zien:

Honek eragozten al dizue sinestea? Bada, Gizonaren Semea lehen zegoen tokira igotzen ikusiko bazenute, zer geratuko ote?»

Eta esan zuen, gainera:

«Horregatik esan dizuet ezin dela inor ere niregana hurbildu, Aitak ez badio horretarako gaitasuna ematen.»

Geroztik, haren ikasleatariko askok atzera jo zuen, eta aurrerantzean ez ziren harekin ibili.

Orduan, esan zien Jesusek Hamabiei:

«Zuek ere alde egin nahi al duzue?»

Erantzun zion Simon Pedrok:

«Jauna, norengana joango gara? Betiko bizia dute zure irakatsiek. Eta guk sinetsi dugu eta badakigu zu zarela Jainkoaren Santua.»

(San Joanen Ebanjelioa, 6. kapitulua, 60-62 eta 65-69 txatalak)

Pasarte honek Jesusen ibilbidean erabakigarria izan zen unea erakusten digu, krisialdi bat; eta bertan zera ikusten da: bere irakaspenak ez datozela bat, ez jendeen sentipenekin, ezta bere jarraitzaileen sentipenekin ere, asaldatuta zeuden-eta Jesusen esanekin. Bere ikasleen elkarte bera sakabanatu egiten da eta askok bertan behera uzten du Jesus. Berak aukeratu dituen haiek ere aban-

donatu egingo duten jakin behar du Jesusek, hori bere elkartearen azkena eta, ondorioz, bere predikuaren porrota litzatekeelako.

Jesusen bizitzan eta egintzan elkarteak duen garrantzia nabarmentzen du kontakizunak. Horregatik, hamabiei zuzenean galdetzen die, benetan Berarengan sinesten duten ala, alderantziz, besteen antzera, eskandalizatuta dauden eta atzera egin nahi duten. Denen izenean hitz egiten duen Pedoren aitopenak, Jesusen erreferentzi taldeak Berarengan sinesten duela eta, besteek alde egin duten arren, haiek Berarekin jarraitu nahi dutela adierazten du. Pedrok denen izenean egiten duen aitopen hau lau Ebanjelioetan jasotzen da eta une erabakigarria da Jesusen bizitzan eta misioan, Ebanjelio sinoptikoek pasarte honen ostean jartzen dituzten nekaldiaren iragarpenean eta Jesusen antzaldaketaren kontakizunean islatzen delarik. Aurrerantzean bere predikuak erabaki handiagoz agertuko du bere behin betikotasuna, legearen eta profeten esanak betetzearena, bai abadeen, zaharren, idazlarien eta farisearren aurrean, baita eta herriagintarien aurrean ere.

3. Jesusek Aitarekin zuen harreman pertsonala

Dei egiten dion eta Jesusek berak ezagutzen ez dituen eta, askotan, Getsemaniko otoitzaldian erakusten duenez, hartu nahi ez dituen bideetatik zuzentzen duen Aitarekiko harreman pertsonala da Jesusen espiritualtasunaren hirugarren alderdia –hasieratik aurreko bi alderdietan agertzen da eta bertatik dator dena–. Leku bazterra da beti, eta basamortua da lekurik sinbolikoena. Jesusen jendaurreko bizitza basamortuko bi esperientzia erradikalen arteko bizitzatzat har daiteke, hau da, jendaurreko bizitzarako prestakuntza, batetik, eta bere nekaldi, gurutziltzatze eta heriotza, bestetik. Bietan, Jesusek etengabeko tentazioak izan zituen, bere boterea bere probetxurako erabili eta Jainko Aitaganako leialtasunari uko egin ziezaion. Bi probetan agertzen da bere hauskortasuna, eta beraz, tentazioan jausteko arriskua, baina baita bere leialtasuna ere, edo gauza bera dena, bekatuaren menpe ez egotea.

Hebertarrei idatzitako Gutunak primeran jasotzen ditu Jesusen hauskortasunaren eta leialtasunaren bi alderdi horiek: *“Izan ere, gure apaiz nagusia ez da gure ahuleriaz gupidatu ez daitekeen norbait, zeren eta bera ere, gu bezala, gauza guztietan probatua izan baita, bekatuan izan ezik”* (4. kapitulua, 5. txatala). Proba horietan, hain zuzen ere, bakarrik agertzen da Jesus, bakarka Aitari otoitz eginez, leku bazterrean, bere biziaren iturriarekiko harreman zuzena bilatuz eta Espirituak zuzenduta emango duen urratsak eskatzen dion bereizketa eginez. Batzuetan, otoitza dramatikoa eta larria bihurtzen da, baratzeko otoitzaren pasarte honetan ikus daitekeenez:

Jesus bere ikasleekin Getsemani zeritzan landa batera iritsi zen, eta esan zien:
– *Zaudete hemen, ni hara otoitz egitera noan bitartean.*

Pedro eta Zebedeoren bi semeak eraman zituen berekin. Tristura eta larria sentitzen hasi zen, eta esan zien:

– *Hiltzeko zorian nago tristuraz. Gelditu hemen eta zaudete erne nirekin batera.*

Eta aurreraxeago joanik, ahuspez erori zen eta otoitz egin zuen, esanez:

– Ene Aita, ahal bada, urrun ezazu niregandik edari samin hau. Hala ere, egin bedi zuk nahi bezala, ez nik nahi bezala.

Ikasleengana joan eta lotan aurkitu zituen. Pedrori esan zion:

– Beraz, ordubete ere ezin izan zarete nirekin erne egon? Zaudete erne eta egizue otoitz, tentaldian ez erortzeko: gogoz gartsu izan arren, ahula baita gizakia.

Bigarren aldiz aldendu eta otoitz egin zuen, esanez:

– Ene Aita, edari samin hau derrigorrez edan behar badut, egin bedi zure nahia.

Eta berriro itzulirik, lo aurkitu zituen, begiak astun baitzituzten. Haiiek utzirik, berriz ere aldendu eta hirugarren aldiz otoitz egin zuen, lehengo hitzak berriro esanez. Ondoren, ikasleengana joan eta esan zien:

– Egin lo eta hartu atseden! Hara, gainean da ordua, Gizonaren Semea bekatarien eskuetara emana izateko.

(San Mateoren Ebanjelioa, 26. kapitulua, 36-46 txatalak)

Ebanjelioko pasarte honek era bikainean eta gordintasun osoz erakusten digu Jesusek duen bakardadearen edo basamortu erradikalaren esperientzia, nekaldi eta gurutzeko heriotza iraingarriaren atarian. Azken Afaria amaitzeaz batera, Jesus Getsemani izeneko baratzera doa ikasleekin. Bere mugimendu espiritualekin bat datozen Jesusen etengabeko mugimenduak dira garrantzitsuenak kontakizunean. Beste batzuetan bezala, hamabien artean, hiru ikaslek osatutako zirkulu estuagoa dagoela erakusten du lehenengo mugimenduak. Jesusek utzi egiten ditu hamabiak, Aitari otoitz egitera joateko, baina hiru ikasle daramatza Berarekin, euskarri bezala, triste eta larri dagoelako, eta Berarekin esna egoteko eskatzen die.

Hortik aurrera, Jesus hiru aldiz mugitzen da Aitarenganantz, hareneskue-tan jartzeko, eta beste hainbeste hiru ikasleen talderantz, hainbesteko larritasunaz beteriko orduan zirkulu estuago horren babesaren bila. Hiru ikasleak lokartu egiten direla diosku kontakizunak eta ez direla Berarekin erne egon, une goren horretan bakardadea saihestezina dela gehiago nabarmenduz eta bere nekaldi eta gurutzeko heriotzan ikasle guztiek abandonatu egingo dutela iragarritz. Aurrera eta atzera egiten dituen hiru mugimenduek bere nahien eta Aitaren borondatearen arteko borroka nabarmentzen dute; hau da, hauskortasunetik sortzen den tentazioaren eta Espirituak seinalatzen dion bokazioaganako leialtasunaren arteko borroka. Jesusen azken esaldiak, azken ordua iritsi dela dio eta Aitaren borondatea onartzeko erabakia sendo eta behin betikoa dela; orduan ez du bere hiru lagun minen babesik behar.

4. Jesusengandik ikasi Espirituaren bideetan ibiltzen

Jesusen bidea bakarra bada ere, bera Semea delako eta Aitarekiko harreman estu eta apurtezina duelako, bikain erakusten dizkigu geure ibilbide espiritualaren osagai batzuk. Lehenengoa, fedea bizitzeak, hau da, Jainkoarekiko erlazioak Espirituaren eskuetan jartzen duela, haren gidaritza onartzeko. Bigarrena, Jainkoak gutariko bakoitzarentzat nahi duen bidetik zuzentzen gaituela Espirituak, hau da, gure bokazioaren bidetik. Espiritualtasuna eta bokazioa, beraz, banaezinak dira, txanpon beraren bi aldeentzakoak. Hirugarrena, gure bokazioari erantzun positiboa emanez, Espirituaren gidaritza onartzeak gure

bizitza markatzen duten eta behin betiko zentzua ematen dioten deliberamendu erabakigarriak hartzea dakarrela. Laugarrena, erabaki hauek gure fedearen testigantza ematen duten ekintza zehatzak direla; beste era batera esanda, fedea bizi eta iragartzea direla Jesusi jarraitzearen alderdi biak, Espirituaren gidaritza pean bakoitzaren bokazioaren bide zehatza ibiliz. Bosgarrena eta azkena, espiritualtasun guztiek hiru alderdi dituztela; desberdinak baina beharrezkoak direnak eta beren artean estu lotuta dauden hiru alderdi: gure bokazioa gauzatzeko mundua, gure bokazioa bizi eta argitzen dugun elkartea eta, azkenik, basamortuaren, harreman pertsonalaren eta otoitzaren esperientzia Jesusen Jainkoarekin.

III. BIZITZA EBANJELIKOA ETA GAURKO KULTURA

Fededun guztien ibilbide espirituala goian aipatutakoa bada ere, bide hori, arlo sozial eta kulturalari dagokionez, gure artean bidezkoa den galdetu beharrean gaude. Erantzuna baiezkoa da, baina ez beste garai batean izan den baldintza beretan. Ebanjelioa naturaltasunez eta korrontearen alde bizitzea dagoeneko ez da posible, kasu zehatz eta mugatu batzuetan salbu. Ez da posible, alegia, ez jendearentzat orokorrean bakarrik, ezta edozein izanik ere beren bokazio-konpromisoa, beren fedea sakontasunez bizi nahi duten guztientzat ere.

Fedearen bizipena gure kulturaren guztiz arazotsua da, nahiz eta gaurko gizakiok hutsune espiritual handia izan, gehienetan horretaz jabetzen ez bagara ere. Aurreko pastoral idazkietan aztertu izan da zehatz-mehatz egoera hau ikuspuntu desberdinetatik, kristau-elkartean bertan duen eragina aipatuz.

1. Inkulturazio zaila eta konplexua

Gorago aipatu dugunez eta *Fedearen esperientzia bizi* izeneko 2003ko Garizuma-Pazkoko Pastoral Idazkian aztertu zenez, trazeendentea, baina aldi berean pertsonala eta hurbila den Jainkoaren esperientzia bizitzeko zailtasuna da sustraiko arazoa; gidari arazoia eta helburu aurrerapena duen, eta modernitateak landua dagoen gaurko kulturaren, Kristo Jesusengan agertu zaigun «Jainkoa-gurekin» horren esperientziabizitzeko zailtasuna.

Mendebaldeko kultura moderno honek geure egitasmoaren emaitza garelako pentsatzera ohitu gaitu, horrela, autonomia pertsonalaren balioa era berezian baloratuz. Honek geure buruaren mui eta erreferentzia bihurtzen gaitu, baina, ez ote da egia egitasmo antropozentriko hau zoritxarreko bihurtu dela aukera askotan? Gertakari historiko guztiz mingarriek ohartarazten gaituzte, pertsona guztien burujabetza bilatzen duen baina manipulazio eta alienazio indibidual eta sozial modu berrietara garamatzen arrazionaltasun- eta aurrerapen-egitasmoa garatu duen modernitatearen arriskuez.

Alderdi onei dagokienez, modernitateak, mendeetako tradizioak sagaratuak zeuzkan bizimoduetatik askatzen lagundu digu. Duela hamarkada batzuk arruntak eta ezinbestekotzat jotzen genituen bizimodu horiek, nahiz eta muga material gizatiar eta espiritual sakonak izan. Modernitatea eta aurrerapena, zen-

tzu honetan, aberastasuna sortzeko, bizitzako baldintza materialak hobetzeko, jakintzaren gizartea sortzeko eta giza duintasuna, zuzentasun birbanatzailea eta, horregatik, pertsonen arteko berdintasun handiagoa sustatzeko eragile garrantzitsuak izan dira. Era bateko eta besteko diskriminazioen bat jasaten duten pertsonen burujabetzaren aldeko borrokak fruituak ematen ditu gaur ere, eta makina bat lagun eta erakunde dabil ahalegin horretan, gure inguruan zein nazioarte mailan.

Normalean giza gaietan gertatzen den bezala, mendebaldeko kultura modernoaren alderdi positibo hau argi eta garbi negatiboak diren beste elementu batzuek lausotzen dute: beste herri batzuk kolonizatzearen eta esplotatzearen ondorioak, joan den mendean bizi izandako gerra eta genozidioen izugarrikeriak, munduko gaur egungo alde izugarrien amildegia eta, gosearen eskandalua munduko hainbat lekutan, gaur egingo gatazka armatu arriskutsuak, beste kultura eta tradizio batzuekiko borrokak, eta, orokorrean, alderdi espiritual eta komunitarioak murrizten eta bazterrera uzten dituen eta denok ezagutzen ditugun ondorio, gabezia eta gaixotasunak dakartzan indar eta gogobetetzearen kulturaren ezarpena.

Askok galdetzen du, ea kultura honetako “pentsamendu indartsua” ez ote den bizirik irautea eta lehiakortasun biziz bustitako giroan arrakasta izatea. Horren parean, gainerako pentsamendu guztiak, kristau-proposamena barne, malkal bihurtuko lirateke; baina, zer ezkututzen da indarraren legearen bertsio berri honen atzean? Ez ote da egia, gure zuzenbidezko estatu preziatua herrialde aberatsetako mugetara murrizten dena? Izan ote daiteke pribilegiatuentzat bakarrik den zuzenbidezko estaturik? Ez ote du gure kulturak bere indarraren balioaren eta bere nagusitasun- eta gailentasun-gaitasunaren pareko nihilismo sakon bat? Bizitzeko arrazoi sakonak, ez ote ditugu mekanismo orekatzaileez aldatzen? Bertiko gaztetasun eta edertasunaren mitoa sustatzen dituen menperatze nartzista eta kontsumoaren bidez bilatzen den arrakasta, gozamina eta asetasuna, ez ote dira horrelako mekanismoak?

Ikuspuntu erlijiosotik, gaur egungo kulturak, bere alderdi kritikoagatik eta burujabetzea eragiteagatik, lagundu egin du fedearen bizipena, bakarkakoa zein elkartekoa, garbitzen, benetako eta erradikalago bihurtu beharra sentiaraziz. Era berean, hala ere, tradiziotik jasotako kultura-moldeetatik burujabe izateak, aurrera egiteko Jainkoa ez dela beharrezkoa (eta gaitz erdi etsaitzat hartzen ez bada) sentitzeak, eta arrakasta, gogobetetasun eta oparotasunaren kulturak dezentente zapaldu eta pribatizatu dituzte gure alderdi espirituala eta komunitarioa.

Gauzak honela, kristau-elkartek bere izatasun eta misioari buruzko hausnarketa egin zuen Vatikanoko II. Kontzilioan (1962-65), gizarte-kulturan gertatutako aldaketei erantzuteko. *Gaudium et spes* Elizari buruzko pastoral konstituzioan, kontzilioak mundu modernoarekin izan nahi zuen harremana azaldu zuen eta gaur egun gatz eta argi izateko deia jaso duen izaera ebanjelikodun elkarrekin bihurtzeko arauak jarri zituen. Erronka handia zen. Gizarte modernoarekin zerikusi gutxi duen gizartean sortutako aurreko eliz moldeak ez ziren nahiko, gizarte horretan, eta ez hain aspaldi, Elizak sarrera handia izan zuelako gizarte-, kultura- eta baita politika-alorrean ere. Bere misio ebanjelikoa berriro beharra zuen, Elizatik gero eta askatuago dagoen, programatikoki gero eta lai-

koagoa den, eta balio eta helburu bereziak dituen gizartearen presio pean. Lortu ote du Elizak erronka handi honi egoki erantzutea?

Eliza, teologikoki eta espiritualki katolikoa izateaz gain, soziologikoki unibertsala den errealitatea da. Planetako leku askotan, europar kontinentea barne, badira kristau-elkarte batzuk loratze nabarmena bizi dutenak, bultzatzen eta sustatzen dituen Espirituak eraginda. Elkarte horietan, Jesusi jarraitzea, bokazio-era anitzetan, beren bizitzetako gertaera nagusi bihurtzen da pertsona askorentzat. Errealitate positibo hau planetako hegoaldeko hemisferioan eta asiar herrialde askotan gero eta garrantzi gehiago duen gure Eliza katolikoaren ezauzgarri esanguratsua da, nahiz eta horietako gehienetan kristau-fedea aitortzen dutenak gutxi batzuk baino ez izan gizarte-mailan.

Gure egoera, hala ere, guztiz desberdina da, batez ere, jakintza eta aurreapenaren kulturaren indarragatik, eta goian aipatutako murrizte espiritual eta komunitarioagatik. Ideal heroiko bati seriotasunez eta egonkortasunez atxikitze nahia, arrakasta neurtzeko erabiltzen diren balioak alde batera utzirik, bideragarritasun oso txikia duen erokeria edo zentzugabekeria bezala agertzen da. Hainbat autorek errepikatu duenez, gutariko askorentzat esperientzia eta bizipen erlijioso mekanismo huts bihurtzen dira, askotan aldizkakoak, lehia-kortasunaren eta arrakasta profesional eta ekonomikoaren eragileei lehentasuna emateko joera duen bizi-giroko bizitzaren hoztasuna orekatzeko. Kontzilioaren jarraibideak kontuan hartuta, gure Eliza Berri Ona bizitzen eta iragartzen saiatzen da, indarrean dagoen kultura honekiko elkarrizketan.

Egoera honek badu nolabaiteko parekotasuna Apostoluen Eginetan irakur dezakegun kontakizunarekin: Paulok, atenastarrei Berri Ona iragarri nahi die, atenastarren jainkotasunaren bilatze filosofiko eta kulturalaren, eta kristautasunak bilatze horri ematen dion erantzunaren artean lotura bat ikusi nahirik. Irakur dezagun Apostoluen Eginetan jasotako kontakizun hau:

Atenasen Timoteo eta Silasen zain zegoela, Paulori barrua sumintzen zion hiria idolo zetea ikusteak. Beraz, juduei eta Israelen Jainkoa gurtzen zuten jentilei sinagogan hitz egiten zien, eta egunero jardun ohi zuen plaza nagusian, bertan gertatzen zirenekin eztabaidan. Zenbait filosofo epikureo eta estoikok ere jardun ohi zuen harekin eztabaidan. Hartu zuten, bada, berekin eta, Areopagora eramanez, honela galdetu zioten: «Jakin al daiteke zer den irakasten duzun doktrina berri hori? Guztiz ideia bitxiak dakarzkiguzu belarrietara, eta zer esan nahi duten jakin nahi genuke». Izan ere, atenastar guztiek eta han bizi ziren kanpotarrek azken berrikeriak entzun eta kontatuz eman ohi zuten beren denbora guztia.

Paulo honela mintzatu zen, Areopago erdian zutik:

«Atenastarrok, edonola ere, guztiz erlijiozale zaretela ikusten dut. Hortik zehar zuen jainko-oroitarrei begira nenbilela, aldare bat aurkitu dut idazkun honetarako: 'Jainko ezezagunari'. Horra, bada: zuek ezagutu gabe gurtzen duzuen, horixe iragartzen dizuet nik.

Mundua eta munduko guztia egin duen Jainkoa zeru-lurren Jauna da eta ez da giza eskuz egindako tenpluetan bizi; ez dute giza eskuek zerbitzatzen ere, ez baitu ezeren beharrik, bera baita denei bizia eta arnasa eta gainerako guztia ematen dizkiena. Gizon bakar batengandik sortarazi zituen Jainkoak nazio guztiak, lur zabal osoan bizi zitezten, bakoitzari bere garai eta lurmugak eza-

rriz. Eta hau guztia, Jainkoa bila zezaten, ea itsu-mustuka bederen aurkitzen zuten; izan ere, ez dago guretako bakoitzarengandik urruti, zeren harengan bizi baikara eta harengan mugitzen, eta izan ere harengan baikara; hori bera esan dute zuen olerkari batzuek ere: 'Haren jatorrikoak gara'.

Beraz, Jainkoaren jatorrikoak bagara, ez genezake pentsa Jainkoa giza trebetasunak eta irudimenak landutako urre, zilar edo harrizko irudien antzeko denik.

Baina Jainkoak ez du kontuan hartu nahi izan gizakien iraganaldia, ezjakinean bizi izan zireneko garaia, eta bihozberritzeko agintzen die orain guztiei edonon. Erabakia baitu mundua justiziaz epaituko duen eguna, eta horretarako ezarri duen gizonaren bidez epaituko ere, berau hildakoen artetik piztuz denei ziur erakutsi dien bezala.»

Hildakoen piztuera aipatzen zuela entzutean, batzuk barrez hasi zitzaizkion; beste batzuek, berriz, esan zioten: «Beste batean entzungo dizugu horretaz.» Paulok, orduan, alde egin zien. Alabaina, batzuk elkartu zitzaizkion eta sine-tsi egin zuten; haien artean, Dionisio Areopagokoa, Damaris izeneko emakume bat eta beste zenbait.

(Apostoluen Eginak, 17. kapitulua, 16-34 txatalak)

Modernitateak oretutako gizartean fedearen inkulturazioak duen zailtasuna ulertzeko esanguratsuak diren elementuak aurkezten dizkigu kontakizun honek. Lehenengoa, idoloen gai biblikoa nagusia eta nabarmena da: idoloen presentziak barrua sumintzen zion Paulori eta Kristo Jesusengan agertutako Jainko bakarra iragartzera bultzatzen zuen.

Israel herriarentzat, Deuteronomio liburuko 6. kapituluko 4-5 txataletan jasotzen den agindu nagusiaren aurka zihoan guztia zen idolo: *“Entzun, Israel: Jauna da gure Jainkoa, Jauna bat bakarra da! Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz eta indar guztiz”*. Agindu hau Jesusek errepikatzen du bere predikuan, Markosen Ebanjelioko 12. kapituluko 29-30 txataletan irakur daitekeenez. Legean aditua den norbaitek Jesusi agindu nagusia zein den galdetzen dionean, hau da Jesusek ematen dion erantzuna: *«Hona hemen nagusia: Entzun, Israel: Jauna da gure Jainkoa, Jauna bat bakarra da! Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz, adimen guztiz eta indar guztiz»*.

Ikus daitekeenez, aginduaren erradikaltasunaren eraginez, benetan sines-teduna denari etengabe eskatzen zaio bihozberritzea, beti aurkituko dituelako bere baitan Jesusen Jainkoa bere bizitzako ardatz bakarra izatea galarazten dioten sasijainkoen haziak. Baina kulturari dagokionez, beste hau nabarmendu beharrean gaude: gure gizarteak, beste ezer baino lehen, etengabeko aldaketarako bere gaitasuna baloratzen duela, elkar sostengatzen duten bi zutabe nagusiren gainean: ekonomi hazkundera eta zientzi aurrerapena, edo, Apostoluen Eginetara itzuliz, urrea eta giza trebetasuna eta irudimena.

Gauzak ikusteko modua eta bizi izateko modua, jakinaren gainean ala ez, gure kultura uztartzen eta moldeatzen duen aurrerapenaren mitoan oinarritua dago. Mito indartsu horren aurrean, guk ere, atenastarren antzera, ondorengoa errepikatzen diegu unibertsoaren epaile den Kristo berpiztuaren eta gure kulturaren arteko elkarrizketa ezarri nahi duten gaur egungo Pauloei: *«Beste batean entzungo dizugu horretaz.»*

Inkultrazioaren metodoari dagokiona da bigarren puntu nagusia. “*Paulok, orduan, alde egin zien*”, diosku aurrerago kontakizunak; horrekin, kulturazko elkarrizketaren bidez ebanjelizatze-ahaleginari uko egiten ziola ematen zuen aditzera; baina ahalegin hori ez zen guztiz alferrekoa izan, “*batzuk elkartu zitzaizkiola eta sinetsi egin zutela*” esaten baitu. Benetan, badugu zerbait gordezko kontakizun honetan: inoiz ez da konprometitu behar Jesus hil eta berpiztuaren iragarpena, eta ondoriozko bihozberritzeko deia, elkarrizketari begira. Elizak ezagutu egin behar du mezua iragarri nahi dion kultura, eta bertara enpatikoki hurbildu, Pauloren Atenaseko predikuan gertatzen den bezala; baina ez kultura horretara eroso moldatu eta beraren bila bidera ateratzeko, kultura honen gabeziak agerian jartzeko eta bilaketaren eta irriken azken zentzua erakusteko baizik.

Azkenik, erne jartzen gaitu pasarte honek, fedea, gurea bezalako kultura indartsu eta garaitetik arrazoitzen saiatzeko den ebanjelizatzearen benetako zailtasunez oharturik egon gaituzen, eta, aldi berean, ahalegina ez dela guztiz alferrekoa izango agintzen digu.

2. Ebanjelioa ereitea eta fruitu emateko baldintzak

Bistakoa da, ez Jainkoari buruzko esperientzia ezta Berri Ona bizi eta iragartzea ere, ezin daitezkeela orain gerta, dagoeneko existitzen ez den garai bateko kultura-baldintzetangertatu ohi zen bezala. Garbi dago, Deuteronomio liburuak “*Entzun, Israel!*” deitik hasi eta Ebanjelioko “*saldu daukazun guztia eta eman behartsuei, zeure aberastasuna zeruan izan dezazun; gero, zatoz eta jarraitu niri*” arte, fedea ez dela pentsamendu arina edo proposamen ahula. Horregatik, gaur egun Berri Ona bizi eta iragartzeko, berariazko nortasuna eta izaera dituen elkarteko kide bizi izan beharra dago; bere sustraiak Jainkoarekiko harremanaren historia bereziaren oroipenean dituen elkarteko kide; eta, batez ere, Jesu Kristoren bizitza, nekaldi eta berpizkundearen oroipena gordetzen, eta Jesu Kristori jarraitzen dion elkartekoa, Espirituaren gidaritzapean.

Zalantzarik gabe, gure kulturaren baratze naturalak dagoeneko ez du beharrezko fruiturik ematen. Ezinbestekoa da, nahiz eta erraza ez izan, Eliza osoa gure munduaren gatz eta argi izatea ahalbideratuko duten izaera ebanjelikodun elkarte desberdinak lantzean, espezializatuak diren baratzeak sortuko dituzten mekanismo pertsonal eta komunitarioak sustatzea. Horretarako, eta Jesusen ibilbide espiritualari jarraituz, alde batera utzi behar dugu, fedea ingurunearen eraginez bizitzeko era; alderantziz, norberegianatu egin behar dugu fedea, jakinaren gainean eta bokazioz bizi izateko, Jainkoaren aurrean etengabe kokatuz eta santutasunaren bikaintasuna lortzera egiten digun dei erradikala beti kontuan izanez. Honen haritik, “*garaien zantzuek*” ereilearen parabola begi berriez irakurtzeko deia egiten digute:

– *Entzun! Atera zen behin batean ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide bazterrean erori zen; eta txoriek etorri eta jan egin zuten. Beste zenbait harri artean erori zen, lur handirik ez zen tokian; eta azaleko lurra izanik, berehala erne zen; baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, sustrairik ez zuelako, ihartu. Beste zenbait ale sasi artean erori zen: sasiak, haztean, ito egin zuten hazia eta ez zuen fruiturik eman. Gainerakoak lur onean erori ziren;*

erne, hazi eta fruitua eman zuten: bateko hogeita hamar edo hirurogei edo ehun.

Eta ohar hau egin zien Jesusek:

– Ulertzeko gauza denak uler beza.

Jesusek esan zien:

– Parabola hau ez duzuela ulertzen? Nola ulertuko dituzue, bada, beste parabola guztiak? Ereileak mezua du ereiten. Mezua ereiterakoan, batzuk “bidebazterra” bezala dira: entzun bezain laster, Satanasek etorri eta haiengan erein den mezua kendu egiten du. Beste batzuk “harri-arteak” bezala dira: mezua entzutean, berehala pozik onartzen dute, baina sustrairik gabeak eta iraupen gutxikoak izanik, mezua dela-eta estuasun edo erasoaldiren bat sortu orduko, erori egiten dira. Beste batzuk, berriz, “sasi-arteak” bezala dira: entzuten dute mezua, baina bizitza honetako ardurak, diru-gosea eta bestelako grinak nagusitzen zaizkie eta mezua ito egiten diete, fruiturik gabe utziz. Eta hona nor diren “lur ona” bezalakoak: mezua entzun, onartu eta fruitua ematen dutenak: bateko hogeita hamar edo hirurogei edo ehun.

(Markosen Ebanjelioa, 4. kapitulua, 3-9 eta 13-20 txatalak)

Has gaitzen azkenetik: lur onean jausten den hazia. Espirituak lur horretan etengabe ereiten duela gure artean oharkabe igaro dakiguke, beren burua fededuntzat dutenen kopuruaren gutxitze soziologikoak biziki arduratzen gaituelako; hala ere, Espirituak ez du kultura-ereduen edo bizitza ebanjelikoaren gure ikuskeren arabera jarduten; Espirituak berri egiten du, guretzat oharkabe igaro daitezkeen eta ulergaitzak eta ibiltzeko zailak izan daitezkeen bide berriak zabalduz. Horrexegatik, funtsezkoa da beti entzuteko prest egotea, “denboren zantzuak” antzemateko.

Espirituak Eliza, legamia izan dadin eraberritzeko, garbikuntzaren eta kulturari buruzko biluztearen bide zailetik zuzentzen duenean gertatzen da lur onean ereitea. Beharbada, honen haritik, gure Elizek hausnarketa sakona egin behar dute, aldi berean ore eta legamia izan ote daitekeen, kristau-elkartea lehenaldian, arrakastaren, oparotasunaren eta asetasunaren kulturen izaten saiatu den bezala, fededun izatea normala izan den kulturen.

Espirituak ez du biluztearen bidetik garbitu bakarrik garbitu izan Eliza; *Gure kristau-elkarteak berriztatu* izeneko 2005eko Garizuma-Pazkoko Pastoral Idazkian aipatzen genuenez, “zeinu adore-emaileak” ere sustatu izan ditu eta sustatzen ditu, karisma eta bokazio berri erara, garai berri honetarako; egia da karisma eta bokazio horiek ez direla ugariak, eta, horietako batzuk, gainera, ezta ohikoak ere; baina, horrexegatik, egoera berri honek arreta gehiago eskatzen digu Espirituaren egintzaren aurrean. Zeinu adore-emaile berri hauek ez dituzte beren erroak nagusi den kulturen botatzen, Espirituaren gidaritzapean barnerratuak, landuak, ospatuak eta Jesusen jarraipenean zailduak izan diren fedearen eta bokazioaren eremu trinkoan baizik.

Pastoral eta soziologikoki, “sasi artean” jausitako haziarekin gertatzen denak du antz gehien gure egoerarekin. Gorago deskribatu denez, izugarri handia da bizi garen kultura modernoaren indarra; Hitza –hau da, Jainkoak bihozberritzera, Jesusi entzutera eta Jesusi jarraitzera egiten digun deia– erokeria bezala agertzen baita; onenean, ederra den baina lortzerik ez dagoen utopia eder bezala; eta deskribatutako aurrerapen, ezagutza, profesionaltasun eta arrakastak

ito egiten dute Hitz hori. Kultura honetako kide garen guztiok gaude, neurri batean edo bestean, egoera honen eragin pean.

Parabolako hitzak erabiliz, asko gara, *“bizitza honetako ardurak, dirugosea eta bestelako grinak nagusitzen zaizkienak”*, eta, ondorioz, Hitzaren indarra guregan zimeldu egiten dela sumatzen dugunak. Terminologia moldatzen badugu, goian aipatutako gure kulturaren balioek, hau da, arrakasta bilatzeak, asetze eta ongizatearen kulturaren murgiltzeak, are zailagoa egiten digute Berri Ona bizitzea eta iragartzea, gero eta eginkizun lortezinago bihurtuz.

Ez dira falta, batez ere gazteen artean, parabolaren “harri artean” jausten den haziaz hitz egiten zaigunean aipatzen den Hitza onartzearen poztasunarekin bat datozen bulkada eskuzabalak. Baina bikote sinestedun eta praktikataile asko ez da beren fedea seme-alabei transmititzeko gauza eta, ondorioz, gero eta gazteago direla uzten dute alde batera fedea, baliorik ikusten ez diotelako; eta hau ez da, gaurko gizartearen ezaugarri den iraunkortasun faltaren eragina bakarrik, konpromisoaren egonkortasunaren aurrean, autonomia itsuari dagokion aldaketarako gaitasuna asko baloratzen duelako, alegia. Gazte askoren fedearen benetako sustrai falta ere adierazten du, fede hori erein izan den kultura lur harritsua eta azalekoa delako.

Ebanjelioko pasarte honetan, bada gure arreta merezi duen eta Espirituak “kristauaren ezberdintasunaz” jabetzen laguntzen diharduen gaurko gure egoera ulertzen laguntzendigun elementu nagusi bat: Hitzaren ereintza oro ez da erne-tzen eta ez du fruitua oparo ematen, baizik eta lur onean jausten denak bakarrik. Gaurko gure egoeran, honek Espirituarengan konfiantza izatera eramaten gaitu; gizarte-mailan indartsua izan zen Elizaren nostalgia ez izatera; eta bakarka eta eliztar bezala kristau-nortasuna garbitzera.

Gure kultura eta gure giza kontingentzia bera hazia makaltzen eta itotzen duen lursail harritsu eta sasitsua dira. Geure lursail pertsonal eta komunitario ona prestatu egin behar dugu, Ebanjelioa bizi eta iragartzeko. Beste era batera esanda, ezin gara ez kristau izan ez Eliza izan orain arte bezala; gure fede “naturala” espirituz jasotako eta berariaz landutako beste fede batez ordezkatu behar dugu. Kristau-elkarte garenez, buru-belarri jardun behar dugu, “garaieen zantzuak” irakurriz, lur onak prestatzen, Espirituaren dohain berriak gauza daitezzen.

3. Bizitza bokazio bezala bizi

Bizia gure esku-hartzerik gabe jaso dugula, hori ez du inork ukatzen. Dohain bezala, zama astun bezala edo, besterik gabe, hor dagoelako, inolako zentzurik bilatu gabe bizitzea, gutariko bakoitzak argitu egin behar du, gure bizitza hori eratzeko prozesuan. Gure bizitza, baita historia ere, une argitsuez, grisez eta ilun eta mingarriak diren beste batzuek egin dago. Inoiz ez da erraza izan zuzentasunez eta duintasunez, hau da, iparra gidatzat izanik, bizitzea; baina, gizon eta emakume guztiok barruan daramagun zorion-grinari erantzun nahi badiogu, zaila da beste bizimodu bat asmatzea.

Ez da nahikoa, hala ere, bizimodu zuzen eta duina bilatzen saiatzea, Ebanjelioa bizi eta iragartzeko. Hori lortu ahal izateko, beharrezkoa da “*geure burua bera baino barruragokoa delako*” askotan oharkabe pasatzen zaigun zerbait aurkitu eta onartzea: maitasunez sortuak izan gara, eta maitasun horretan bete-betean parte hartzeko deia jaso dugu. Antzeman al dugu geure barru-barruan bizi den eta sustraitik eratzen gaituen misterio hau? Gutariko askok urrunekoa eta, beraz, kanpokoa den eta geure buruarekin zerikusirik ez duen Jainkoarengan sinesten dugu.

Jainko horri makina bat titulu eman izan zaio: infinitua, adieraztezina, absolutua, orojakilea, ahalguztiduna, nonahikoa, gauza guztien jatorria eta guztien azken helburua, etab., etab., gure tradizio teologiko aberatsetik jasota. Egia dira denak, baina horiek ez dute gure bihotza mugitzen. Bat bakarra da egiaz Hura zuzen adierazten duen izena, bat bakarra aldi berean beharrezkoa eta nahikoa dena: “*Jainkoa maitasuna da*”.

*Ene maiteok,
maita dezagun elkar,
maitasuna Jainkoarengandik baitator,
eta maite duen oro
Jainkoarengandik jaioa da
eta ezagutzen du Jainkoa.
Maite ez duenak ez daki deus ere Jainkoaz,
Jainkoa maitasuna baita.
Hara nola agertu den Jainkoaren gureganako maitasuna:
Jainkoak bere Seme bakarra mundura bidali zuen,
beronen bidez bizia izan dezagun.
(San Joanen lehenengo gutuna, 4. kapitulua, 7-9 txatalak)*

Itun Berriko testu esanguratsu eta eder hau Jainkoaren maitasunaren esperimentiaz zeharkatutako espiritutik sortzen da, eta inolako teologiak ez bezala adierazten digu, oso-osorik maitasuna den Jainkoaren misterioa. Pasarte honek Hirutasuna den Jainkoaren eta haren egintza osoaren muina agertzen digu, eta kreazioaren, berrerospenaren eta Jainkoaren bizitzan bete-betean eta betiko parte hartzeko deiaren zergatiaren funtsa. Giza hitzetan adieraz dezakegun Jainkoaren “akats” bakarra ere ematen digu agertzera: Jainkoak ezin diola maitatzeari utzi. Jainkoaren “maitasun menderaezin” honi esaten diogu grazia edo jainkozko bizia.

Jainkozko graziaren eta graziagatik kreature garenez, geure izatearen muina ere maitasunez eginga dago. Horregatik, giza nahirik gorenena –guztiz zoriontsu izatearena– inolako mugarik gabe maitatuz eta maitatuak izanez bakarrik ase daiteke. Horixe da gehien irrikatzen duguna eta, azken batean, horrek bultzatzen gaitu izatera eta jardutera. Gure nahi horrek giza bizitasunaren oinarri eta zeru-muga bezala jarduten du beti, eta zorionekoen bizitzan baino ezin da lortu osotasunean eta behin betiko.

Testuko baieztapen nagusiak eta elkarren osagarriak bi dira: «*maitasuna Jainkoarengandik dator*» eta «*Jainkoa maitasuna da*». Gainerako guztia, hortik eratortzen da. Jainkoaren kreature izanik, hau da, maitasunez sortuak eta

maitasun horretan bete-beteen parte hatzera deituak, geuk ere sakonean, ezin diogu maitatzeari utzi, geu garenari uko egin gabe.

Oinarri hauen arabera, Jainkoa bihotz-bihotzez maitatzeko, eta lagun hurkoa geure burua bezala maitatzeko agindu bijoitza ez da, salba gaitzen, kanpotik ezartzen zaigun zerbait, Espiritua guregan bizi delako, funtsean egiten daki-gun eta egin nahi dugun gauza bakarra baizik; hau da, jarraitu behar dugun jorkabide morala maitasuna den Jainkoaren eta Jainkoak gu sortzeko izan duen eta guran dagoen maitasunaren ondorio zuzena da.

Testuaren bukaeran baieztapen bat egiten zaigu: Aitarene Seme bakarra den Jesusengan agertu zaigula maitasun hori; hain zuzen, bizia izan dezagun Seme hori mundura bidalia izan denean. Jesusen bitartez bizi gara, eta horrek argi eta garbi uzten du ikasle izatearen eta lehenengo bi ikasleen “bat-bateko maiteminarene” nondik norakoa. Biek sentitzen dute, Jesus dela Mesias irrikatua, beren salbatzailea eta askatzailea.

Beraz, ikasle izatearen eta maitatzea den bokazio bakarraren oinarriak geure izatetik bertatik datoz: maitasuna den Jainko Aitak sortu gaituen izaki gara; Aita honek agertzea eman digu zein den bere izatea, Jainko-Seme bakarra mundura bidaltzean eman ere, geure morrontzetatik askatu eta bizia izan dezagun; guran bizi den Aita honek Jainko-Espiritu Santu bezala eta maitekiro gidatzen gaitu.

Fedearen esperientzia bizi izeneko 2003ko Garizuma-Pazkoko Pastoral Idazkian adierazi genuenez, hau guztia ezin da, besterik gabe, kanpo errebelazio bezala jaso; ezin da teorikoki ulerturiko zerbait bezala geratu. Zuzenean bizi behar da, geure izatearen zimendu bizi eta grina bultzatzaile bihur dadin.

Pastoral Idazki berean genioen, esperientzia hori geuregan dagoela, bai gure eguneroko bizitzan eta bai gure bizitzako funtsezko gertaeretan ere. Normalean, denok dugun benetako esperientzia mistiko jatorrizko hori, gure maitatzearen eta sentitzearen “atze-oihal” hori, oharkabe pasatzen zaigu eta, gainera, giza existentziak berariazkoak dituen kontingentzia, anbiguotasun eta opakotasunaren menpe dago; hori da arazoa. Bide bakarra dago esperientzia hori azalarazteko eta aitortzeko: bilatu, aurkitu (edo hobeto esanda, Berak aurki nazan utzi) eta Jesusi jarraitu; izan ere, San Joanen Ebanjelioan Berak dioskunez, “*Neu naiz Bidea, Egia eta Bizia*”.

Gure bokazioa, beraz, dohaina da, eta eginkizuna: sortu eta berrerosi gaituen, eta gure bihotzean dagoen Maitasunean bete-beteen parte hartzeko deia jaso dugu, Jainkoa eta lagun hurkoa osotasunez maitatuz eta Jesusi leial jarraituz, Espirituaren gidaritzean.

Espirituak era esplizitu eta inplizitu anitz sustatu du, garai eta kultura guztietan, bokazio horri erantzuteko. Gure bizitzetan eta gure inguruan etengabe eta oharkabe gertatzen diren, eta gizatasunez bizitzen laguntzen diguten “maitasunaren mirari” kontaezinak, zalantzarik gabe, geure barru-barrutik sortzen zaigun funtsezko bokazio horri emandako erantzun positiboaren fruitu dira; hala ere, Jesusen Jainkoarengan sinesten dugunez, gaur, inoiz baino gehiago, bizi eta iragarri egin behar dugu Berri Ona, benetan Berri On hori izan dadin,

bai guretzat –epeltasunaren emaitza diren moteltasun eta geldotasunetik gu askatuz– baita eta gure gizartearentzat ere.

Geure bizitza bakoitzak heldutasunez eta kontrastatuz bereizitako bere bidetzat hartzen duenetik bokazioz biziko badugu, Espirituaren gidaritza onartu behar dugu, Jesusengan ikusitako hiru gunek kontuan izanik: eguneroko geure bizitzaren gunea, kristau-elkartearen gunea eta Jainkoarekin pertsonalki topo egitearen gunea.

IV. BOKAZIOA EGUNEROKO ZEREGINETAN BIZI

Aitaren antzera, guztiz onak izateko bidetzat hartu behar dugun gure bokazio ebanjelikoaren garapenak, erabateko prestasunaren eta eguneroko jardueraren arteko tentsioari eustea eskatzen digu. Ez bistakoak diren arrazoi praktikoengatik bakarrik; Jainkoaren maitasun sortzailean partaide garenez, sortzaile-kide gara geu ere haren egintzan, haren lankide geure lanaren bidez, eta ezkontza- eta famili maitasunaren, eta guztion ongizateari egiten diogun ekarpenaren bidez.

Eguneroko oinarritzko hiru eginkizun hauek era askotako eta ezinbesteko jarduera eta harremanen bidez garatzen dira; dena dela, hauen guztien benetako zentzua bihotz-bihotzez eta gauza guztien gainetik maitatu behar dugun Jainkoarengandik dator. Horregatik, gure ahalegin eta eginkizun guztiak Jainkoari begira gauzatu behar ditugu, edo, San Ignazioaren espiritualtasunetik ondorioztatzen den bezala, “ekintzan konptenplari” izan.

Geu garenak zein egiten dugunak Jainkoarengan du sustraia eta muina. Jesusek, Berari jarraitzeko, ulergaitzak egiten zaizkigun eta funtsezko gure betebeharren aurkakoak diruditen eskakizunak aurkeztuz hitz egiten digu erradikalitasun horri buruz; baina, kontrakoa iruditu arren, fededun orori ezar dakizkioke betebeharrak horiek, eta ez bokazio sagaratu deitutakoei bakarrik. Ikus dezagun, Beraren jarraipenari buruz ematen digun aholkutik hasiz:

Gero, jendeari eta ikasleei dei eginik, esan zien Jesusek:

– Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, bere gurutzea hartu eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia gorde nahi duenak galdu egingo du; bere bizia niregatik eta Berri Onagatik galtzen duenak, ordea, gorde egingo du. Zertarako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bizia galtzekotan? Eta zer eman dezake gizakiak, berriro bizia bereganatzeko?

(Markosen Ebanjelioa, 8. kapitulua, 34-37 txatalak)

Ba ote dago ezer kontrakulturalagorik? Ba ote dago, ordea, beste ezer beharrezkoagorik, bere buruarekin eta bere lorpenekin itsutua dagoen kultura sendatzeko? Eman ote diezaiokegu Jesusen dei honi baieztako eta benetako erantzuna, horrek geure buruarekin, gure inguruarekin eta gure gain ditugun era askotako erantzukizunekin gatazkarik sortu gabe? Baieztako erantzun horrek, ordea, indar askatzaile itzela duela sumatzen dugu.

Bizitzako esparru nagusienetara begira –hala nola, lana, ditugun ondasunak, gure era askotako ahalegin itogarriak, familia eta besteen aurrean dugun erantzukizuna–, behin eta berriro errepikatzen den Jesusen dei zorrotz honetan, bi maila bereizi behar dira. Lehenengoa sustraia doa beti: Jainkoa da gure izatearen eta gure egitearen iturri eta muina; eta, ondorioz, Bera da guztiaren, guzti-guztiaren erreferentzia. Bigarren maila praktikoagoa da: aurrekoarekin bat datorren bizimodua nork bere egitea, Jesusi jarraitzearen ezaugarriak markatzen dituzten ekintza zehatzez eratuta.

Nork bere burua ukatzea, lehenengo eta behin, ni neu ez naizela nire jainkoa eta inoren jainkoa aitortzea da; era berean, bizia Jainkoak doan eman didan dohaina dela aitortzea da. Horregatik, neure bizitza neuretzat gordez neure baitan ixten banaiz, neure gatibu, ez naiz neure obsesioen zerbitzari baino bihurtuko, honela biziaren iturrira lotzen nauen sustraia eta, ondorioz, neure bizia akabatuz.

Honek alderdi praktiko nabarmena du. Jasotako biziaren dohaina dohain bezala baino ezin da loratu eta hazi; hau da, Jesusekin gertatu zen bezala, besteentzat eta munduarentzat dohain eta bizi-iturri izanez. Kontrakoa eginez gero, bere burua traizionatzen du eta makaldu eta hil egiten da. Paradoxa dirudien hau, hala ere, giza esperientziarik benetako eta oinarrizkoena da, lehenago genioenez gure kultura, gure mugak eta ondoriozko bizitzako opakotasunak gora-behera, hori argi eta garbi onartzeko zailtasunak baditugu ere.

1. Gure lana

Printzipio hau nagusituko da Jesusen irakaskuntza eta burubide guztietan. Ikus dezagun lanari eta gure ahalegin ugarietarako buruzko adibide bat:

Bidean zihoazela, Jesus herrixka batean sartu zen, eta Marta zeritzan emakume batek etxean hartu zuen. Bazuen honek Maria izeneko ahizpa bat, eta hau, Jaunaren oinetan jarrita, honen hitza entzuten zegoen. Marta, berriz, lanpetua zebilen etxeko zereginetan. Orduan, Jesusengana joan eta esan zion: – Jauna, ongi ikusten al duzu nire ahizpak etxeko lan guztiak nire gain uztea? Esaiozu laguntzeko.

Jaunak, ordea, erantzun zion:

– Marta, Marta, gauza askorengatik zabilta kezka eta larri; baina bat bakarra da beharrezko. Alderik onena aukeratu du Mariak, eta ez dio inork kenduko.

(San Lukasen Ebanjelioa, 10. kapitulua, 38-42 txatalak)

Ebanjelioko kontakizun guztietan bezala, xehetasunak ezinbestekoak dira sakontasun guztiaz jabetzeko. Jesus eta bere jarraitzaileen elkartearen beti bidean doa, azkenean Jerusalem-era eramango dituen eta, zehazki, Jesus kalbarioraino zuzenduko duen Espirituak gidaturik, etengabeko erromesaldi bihurtu den bizi-tzan. Jesus herrixka batean sartu zela eta emakume batek, Martak, bere etxean hartu zuela diosku kontakizunak. Orduan zein gaur, norbait geure etxean hartzea ez da azaleko zerbait, geure izatearen eta bizimoduaren zati bat erakustea eta konpartitzea baizik. Hartzen dugunarenganako adiskidetasun, estimu eta

konfiantzazko jarduera da. Konfiantza beharrezkoa da; gure etxea beste batzuei zabaltzean, gure izateko eta bizitzeko moduaren funtsezko atal bat erakusten dugulako, eta hori, zalantzarik gabe, arriskatzea da edo haien aurrean ‘desestaltzea’. Martak erronkari heldu eta Jesusi harrera egiten dio.

Kontakizunak Martaren ahizpari, Mariari, begiratzera garamatza; bere jarreragatik, maisu espiritual handitzat du Jesus. Bi datuk pentsarazten digute hori: lehenengoa, Jesusen aurrean duen jarrera da: ez da solaskide bezala jartzen, bere parean eserita, bere oinetan baizik, miresmen eta errespetua adieraziz. Bigarrena, jarrera horretan zegoela, Jesussek esandakoak entzun nahi zituelako. Jesusen hitzak xurgatzen imajina dezakegu. Beste behin ere, mugimendu fisikoa eta espirituala eskutik doazela erakusten zaigu.

Jesusen bisita dela-eta, bi jarrera desberdin aurkezten dizkigu kontakizunak: Maria ikasle bezala txundituta zegoen bitartean, *Marta lanpetuta zebilen etxeko zereginetan*. Bere ahizpa Mariak lan guztia bere gain uzten zuela pentsatuta, Martak, anfitrioiak, jarrera hartzeko eta bere alde egiteko eskatzen dio Jesusi. Jesusen erantzuna Mariaren aldekoa da; gauza bakarra dela garrantzitsua esaten du; eta, beste behin ere, Ebanjelioa bizitzeko ezinbestekoa den balioen eskala aurkezten digu: Jesus, Aitaren Seme gizon egina da funtsezko bakarra. Gure eginkizun eta ahalegin guztiak, guri guztiz garrantzizkotzat iruditu arren, Jesusen jarraipenari lotuta badaude dira funtsezkoak.

Gure kulturaren ardura ia bakarra, gero eta azkarragoa den aurrerapen zientifikoa eta ekonomikoa dakarkigun ekintza eraldatzailea da. Arrakasta duen, mundu fisikoa menperatzeko eta gure lehenetasunen arabera aldatzeko gaitasuna bultzatzen duen edo “aberastasuna dakarren” ekintzari bakarrik ematen zaio garrantzia gure kulturaren “balore-merkatuan”. Horrek merkatu horretan gehiago eskaintzera bultzatzen gaitu denok, geure burua prestatuz, espezializatuz eta profesionalizatuz, aintzat har gaitzaten eta norbait izan gaitezen.

Konturatzen al gara berariaz gizatiarra den esparru hau arriskutsu eta arriskugarria den dinamika horren menpe dagoela gero eta gehiago? Nora garamatza? Gero eta gehiago dira aurrerapen deitzen dugun eta aldarehorretan dena sakrifikatu behar dugun geure kulturako idolo handi honek planetaren suntsipenera garamatzala diotenak. Kreatzioan laguntzaile izateko deia jaso dugunok, beraren hondamendiaren eragile bihurtu gara, gure gaitasun teknikoek liluraturik. Geure ongizate egoistaz itsututa eta “munduaren zilborra” garela sinetsita, ez gara ondorengo belaunaldiei planeta hondatua utziko diegula ikusteko gauza. Azken batean, gure “aurrerapen”-dinamikak, planeta fisikoa hondatzeaz batera, giza balioen eta biziaren mundua larriki zauritzen du.

Marta eta Mariaren kontakizun ezagun honek erlatibizatu eta kritikatu egiten du, larritzen eta obsesionatzen gaituen “ekintza eraldatzailearen” garrantzia, gure begiak beharrezkoa den gauza bakarrera zuzenduz: Jesusengana, hain zuzen, Aitaren salbamenezko asmoaren erromesa denarengana; Jainkoaren aurpegia eta, ondorioz, geure eta, gure lanaren bidez, zaindu, mantendu eta gizatasunez bete behar dugun munduaren benetako izatasuna erakusten digun maisu eta gidariarengana gure begiak zuzenduz.

a. Ondasunak, lanaren fruitu eta Jainkoaren dohain

Lanetik eratorritako aurrerapena aberastasunaren arabera neurtzen da gehienbat. Horren eraginez, lehiaren kultura gero eta oldarkorragoa eta indibidualistagoa sortu du. Lehia horren gogortasuna konpentsatzeko, asetasunaren kultura garatu dugu. Bat al dator hori bizitza ebanjelikoarekin? Ebanjelioak berak hitz egin dezala:

Bidean abiatzera zihoala, gizon bat etorri zitzaion lasterka eta, aurrean belaunikaturik, galdetu zion:

– Maisu ona, zer egin behar dut betiko bizia ondareztat jasotzeko?

Jesusek erantzun zion:

– Zergatik esaten didazu ona? Inor ez da ona Jainkoa besterik. Badakizkizu aginduak: ez hil inor, ez egin adulteriorik, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, ez egin kalterik, ohoratu aita-amak.

Hark orduan:

– Maisu, gazte-gaztetandik bete izan dut hori guztia.

Jesus maitasunez begira jarri zitzaion, eta esan zion:

– Gauza bat falta zaizu bakarrik: zoaz, saldu daukazun guztia eta eman behartsuei, zeure aberastasuna zeruan izan dezazun; gero, zatoz eta jarraitu niri.

Hitz hauek entzutean, ilun jarri zen gizona eta atsekabez joan, ondasun handien jabe baitzen. Inguruan begiratu, Jesusek esan zien bere ikasleei:

– Bai nekez sartuko direla aberatsak Jainkoaren erreinuan!

(Markosen Ebanjelioa, 10. kapitulua, 17-23 txatalak)

Era batera edo bestera, bere buruari Ebanjelioaganako leialtasunari buruzko galdera egin dion nork ez du bere burua pasarte honetan islatuta ikusten? Kontakizun ebanjeliko gehienen antzera, hau ere gizatasun eta espiritualtasun sakoneko sentimendu eta jarrerak islatzeko gaitasun handia ematen dioten xehetasunek zeharkatzen dute. Kasu honetan eta beste behin, Espirituaren eskue-tan bidean abiatzera doan Jesus dugu begien aurrean.

Bat-batean Jesusengana jotzen duen pertsona horren hurbilketaren ezau-garriez jabetzeak pertsona horren jarrera espiritualaren berri ematen digu: ari-neketan doa Jesusen bila, Honen aurrean belaunikatu egiten da, galdetu egiten dio, eta ‘Maisu ona’ esaten dio, hau da: bere bizitza bereizteko premia sentitzen du, horretarako Jesusekin bat egin behar duela sumatzen du, erabateko apaltasunezko jarrera hartzen du haren aurrean, elkarrizketa zintzo eta zuzena nahi du eta, azkenik, bere funtsezko dilema existentziala argi dezakeen Maisutzat aitortzen du, Jesus ona delako.

Jesusek ‘ona’ esaten diotenean ematen duen erantzunak bere bitartekari-lana adierazten digu eta Aitarekin duen erlazio ona. Jesusek ‘ona’ izengoitiari uko egiten dio eta Aitari bakarrik egotzen dio, bere solaskidearen aurrean Jainkoarenganako erabateko maitasuna gaurkotuz eta bere bizitzako muintzat hartuz, eta solaskide horri gauza bera egiteko dei eginez. Ba ote dago bere buruarekin eta Jesusekin zintzo eta leial jokatzeko saiatu den inor, Jesusek banan-banan aipatu berri dizkion aginduen zerrendari emandako erantzunean antzematen den irrikaz beteriko bilaketan bere burua islatua ikusten ez duenik? Nahiz eta aginduak betetzea beti erraza ez izan, hori egitea ez dela nahiko sentitzen dugu;

agindu horiek lortu nahi dugun zerbait garrantzitsuagoaren adierazgarri direla sumatzen dugu.

Irrikaz beteriko bilaketa horren zintzotasunak ukitzen du, hain zuzen ere, Jesusen bihotza, eta bere solaskidea adi-adi begiratzera eta maitatzera bultzitzen du. Zeinuak, Ebanjelioan beste batzuetan gertatzen denez, bere gizakundearen egiazkotasuna erakusten du, bere gizatasun sakonaren bidez. Gutariko askok ere sentitu izan dugu haren begirada sarkorra geure bihotz barruan, jaso izan dugu haren maitasunaren esperientzia eta, ondorioz, entzun izan dugu haren deia: *“Gauza bat falta zaizu bakarrik: zoaz, saldu daukazun guztia eta eman behartsuei, zeure aberastasuna zeruan izan dezazun; gero, zatoz eta jarraitu niri.”* Eta, horregatik, geure burua ikasle zintzoaren tristuran islatua ikusten dugu, eta Jesusek eskatzen dion jauzi kualitatiboa emateko ausardiaren faltan. Azkenean, Jesusek, ingurura begiratu eta ondorengo diosku Berari jarraitu nahi diogun guztioi: *“Bai nekez sartuko direla aberatsak Jainkoaren erreinuan!”* Hausnarketa sakona egiteko hitz deigarriak dira.

Egindako galderak eta Jesusen erantzunak guztiongan dute eragina: *“Maisu ona, zer egin behar dut betiko bizia ondareztat jasotzeko?”* Galdetzen dena ez da, zer egin behar den Jesusi aparteko eran jarraitzeko, edo, Erdi Arotik Vatikanoko II. Kontziliara arte indarrean egon zen teologian esaten zenez, zer egin behar den santutasun handiagoko bizimodua nork bere egiteko; salbatzeko baldintzari buruz ari da. Honek zera ulertarazten digu: ikasleen artean ez dagoela santutasun-maila desberdinik, jarraitzeko bide desberdinak baizik, eta guztiak beharrezkoak eta baliozkoak direla; hain zuzen ere, denoi egiten zaigu santutasunaren bikaintasunera iristeko deia.

Testuak gure kulturarentzat eta kultura horren barruan gauden guztiontzat bereziki nabarmena den zerbait aurkezten digu: *aberastasuna zeruan izateko* deia. Jainkoa da gure benetako altxor bakarra eta, ondorioz, sortutako guztia altxor da Hari lotuta badago. Altxor horren ordez beste batzuk egiten baditugu, biziaren iturri den funtsezko harremana moztuz, ezin dugu betiko bizirik izan. Esperientziaz dakigu, bere indarragatik arrastaka garamatzen erreka dirudien kultura honetan, zein zaila den beste altxor horietatik geure buruak askatzea. Horregatik, gaur egun Ebanjelioa bizitzeak osagai kontrakultural garrantzitsuak dira. Korrontearen erdian sendo irauteko, ezinbestekoak ditugu eskuzabaltasuna, argitasuna, elkarte-laguntza eta Jainkoarekiko harreman pertsonala, kontrastatzeko, bereizteko, jarduteko eta irauteko.

Gure aberastasuna zeruan izatearen jarrera erradikal eta oinarritzakoaren auzi honek isla praktiko bikoitza izan behar du. Geure aurrerapen sozial eta pertsonala erakusteko eta geure bizi-maila gero eta altuagoa izateko irrikaz itsututa bizi garenoi, zera gogoratzen digu Jesusek: ez dugula eskubiderik, pobreak daudden bitartean, geure ondasunak geuretzat gordetzeko. Jainkoarena da guztia eta Jainkoak premiazko deia egiten digu, denok izan dezagun lekua guztiona den kreazioaren mahaian.

Erruki hunkigarria sentitzen zuen Jesusek behartsuen aurrean. Eta guk ospa al dezakegu Eukaristia gaur, guztion Jaunaren mahaiaren beste aldean gizateriaren erdia baino gehiago jartzen dela jakinik eta “behartsuen multzo” horrek guri inolako ziztadarik sentiarazi gabe? Nola adostu eskandalagarria den

elkartasunik eza hori San Paulok Korintoko elkarteari Eukaristiaren ospakizunari buruz idazten zizkion hitzekin: “*Zeuen elkarte-otorduetarako biltzen zaretenean, egiten duzuen ez da Jaunaren afaria, nor bere afaria jaten hasten baita; horrela, bata goseak gelditzen den bitartean, bestea mozkortu egiten da*”? (San Pauloren lehenengo Gutuna Korintiarrei, 11. kapitulua, 20-21 txatalak).

Ez da nahikoa geure gizarte barruan gauzak banatzea dakarren elkartasuna; elkartasun horrek Jainkoak sortutako pertsona guztiengana iritsi behar du. Gizabanako eta kristau-elkarte bezala, beharrezko bide eraginkorrak bilatu behar ditugu horretarako. Premiazkoa da geure buruari honako galdera hau egitea: ez ote gara Epulon axolagabeak gure ate aurrean zotinka dauden ‘Lazaroen’ aurrean? Gure arteko hainbeste jende apalarengandik ere ikasi behar dugu; horietako asko eta asko pentsionistak dira, baina Ebanjelioko alargunaren antzera, beren limosna ematen dute karitateak eraginda.

Jesusen deiak badu beste ondorio praktiko bat ere: gure ondasunek Jainkoarengandik eta lagun hurkoarengandik apartatzen bagaituzte, eragozpena baino ez dira gure bizitza eta zorionerako, eta utzi egin behar ditugu “bidaia ekipaje arinarekin egiteko”. Horretarako neurriak hartu behar ditugu, gero eta ugariagoa, konplexuagoa eta sofistikuagoa den ondasun eta zerbitzuen kulturaren kontrakulturala gertatzen den Ebanjelioa bizitzeko beste ezaugarri batean aurrera egiteko: bizitzako sinpletasuna.

Kontua ez da, oparotasuna, konplexutasuna eta sofistikaioa adierazten duen guztiari printzipioz uko egitea, inoiz existitu ez den “bizitza natural” baten antzekora itzultzeko. Ez dugu ahaztu behar, Jainko kreatora izan zela Berak sortutako zeru eta lurra aldatu zituen lehenengoa. Horrela, bere kreatoraren osteko lehenengo unean, Hasiara liburuak kontatzen digunez, “*lurra nahas-mahas hutsa zen: leize handiaren gain ilunpea*”. Jainkoak kosmos bihurtu zuen nahas-mahas hori, hau da, zerbait ordenatua egin zuen, argia sortuz, urak bananduz, ortzia, landareak, abereak, Edeneko Baratze ederra eta, azkenik gizakia, gizon eta emakume bezala, sortuz.

Sinpletasun ebanjelikoan bizi nahi izan duten historiako gizon-emakume santu guztiek kreatora maitasunez lantzen eta aldatzen jarraitu dute, askotan beraien eskuz, erregalu eman zaigun kreatora. San Benitorentzat, monjearen eskulana guztiz garrantzitsua zen praktikan, eta giza eta espiritu-mailan. Hori dela eta, Beneditarren ordenak zeresan handia izan zuen Europan, teknologi eta kultura-arloan, VI.-XIII. mendeetan. San Buenaventurak dioenez, eskuzabalatasun- eta bakuntasun-eredu izan zen Asisko San Frantziskok bere eskuz eraberritu zituen San Damian, San Pedro eta Protziunkula elizak, erortzeko zorian zegoen bere etxea konpontzeko Jainkoaren deiari erantzunez. Gertaera espiritual hau jarduera fisikoaren bidez adierazi zen, jasotako ondarea onartuz eta hobetuz, Jainkoaren zerbitzura.

Kontua ez da, beraz, kreatora dugun ardura bertan behera uztea, geure burua existitzen ez den sinpletasun faltasuan kokatzeko. Jainkoaren maitasun sortzailearen laguntzaile gara eta izan behar dugu, baina ez geure egintzen gaitibu eta esklabo bihurtzeraino. Espirituzko askatasunerako baldintza eta laguntza da sinpletasuna. Ugaritasunak zama jartzen digu, oztopatu egiten digu eta

txirotu egiten gaitu fisikokoki eta espirituari eta sormenari dagokienez. Atsegin-keriaren gizarte honetan hain hedatuta dagoen edo hainbeste bilatzen den aseptasunak hil egiten gaitu zentzu guztietan.

Ez da ez erraza, ezta samurra ere, arlo honetan urratsak ematea, ez barka, ez familian ezta gizartean ere; uko egitea eta haize kontra ibiltzea eskatzen du horrek. Horregatik, Jesusek, adi-adi begiraturaz eta sakontasunez maitatuz, eskatzen digun urratsak goibeldu eta beldurtu egiten gaitu. Horrexegatik da, hain zuzen, ezinbestekoa. Puntu honetan, beste askotan bezala, zeruan dugun aberastasunari begira, hau da, trazeendentea eta barnekoa den Jainkoari begira bizitzeak askatu egiten gaitu kateetatik eta indar sortzaileak pizten dizkigu.

b. Lan egin, probidentzian konfiantza jarriz

Jesusek Jainkoaren probidentziari buruz ematen duen irakaspena izango da, beharbada, aurretik esandakoaren burutzea:

– Horregatik diotsuet: ez kezkatu bizitzeko zer jango, zer edango, zer jantziko duzuen pentsatuz. Fedegabeak arduratu ohi dira horiez guztiez; baina zeruko zuen Aitak badaki horren guztiaren beharra duzuen. Ardura zaitetze, batez ere, Jainkoaren erregetzaz eta haren nahia betetzeaz, eta beste hori guztia gehigarritzat emango dizue Jainkoak.

Ez arduratu, bada, biharko egunaz, biharkoak ere ekarriko baitu bere ardura. Aski ditu egun bakoitzak bere buruhaustea.

(San Mateoren Ebanjelioa, 6. kapitulua, 31-34 txatalak)

Ezin esan Jainkoaren probidentzian sendo sinesteko garai egokia bizi dugunik. Sineste hori, gure kulturen, sineskeria sakon bihurtzeko zorian dago. Giza ekintzak historia gidatzeko eta aldatzeko duen boterean bai sinesten duela irmoki kultura modernoak, are gehiago bere burua garatutzat duen eta bere lorpenez harro dagoen gizarte honetan. Sendoa benetan da uste hori, eta denok geure egitea eta gauzak ikusteko era naturaltzat hartzea lortu du.

Ba ote du eraginik gure bizitzan, neurrigabe maite gaituen Jainkoa aita-maitasunez eta -samurtasunez arduratzen dela gutariko bakoitzaz sinesteak? Badira gure artean sinesmen sakoneko fededunak eta elkarteak, etengabe Jainkoaren presentzian biziz, haren begirada arduratsua sentitzen eta horren testigantza ematen dutenak. Denok ezagutzen ditugu horietako batzuk; argitasuna ematen digute eta gauzez dugun ikuskera zalantzan jartzen. Seguruenik, hala ere, gutariko gehienok aitortu beharko genuke, maitasun arduratsua horretan dugun konfiantza guztiz erlatiboa dela eta, benetakoa baino gehiago, sinbolikoa.

Ebanjelioko testu honek gauza guztiz esanguratsua gordetzen du, oharkabe pasa badaiteke ere: ez da berdin Aita dugula sinestea edo ez sinestea. Sinesteak, bizitza ikusteko eta bizitzeko modua bera erabat aldatzen duten ondorio praktikoak dituen funtsezko aldea dakar. Normala da, dio Jesusek, Aita horrengan sinesten ez duena bizitzeko oinarrizko beharrez –jateaz, edateaz, janzteaz– arduratuta egotea, eta horien faltan ez gertatzeko ahalegintzea. Nola ez, bada? Nork bazterrera utzi ardura hori? Hona iritsi nahi du Jesusek: biziaren dohaina eman dion zeruko Aitarengan sinesten duenak, benetan Harengan sinesten

badu, ezin da berdin ahalegindu; konfiantzazko jarrera izan behar du sortu duen eta bere beharrak ezagutzen dituen Harengan.

Puntu honetara iristean, ondorengo galdera egin behar diogu geure bu-ruari: sentitzen al dugu, altxorra, bizi- eta indar-iturri agortezina dela gure fe-
dea? Ala, ostera, besteengandik jaso dugun eta gizarte eta kultura-mailan oihar-
tzun handirik ez duen zerbait bezala baloratzen dugu? Hain zuzen, ez dugu guz-
tiz galdu nahi, baina, aldi berean, ez dugu guregan eragin garrantzitsuegia izate-
rik ere nahi. Egia da Jainkoaren maitasuna benetan bere kreature guztiengana
hedatzen dela eta Espirituak historia osoa gidatzen duela eta jarraitzaileak so-
rrarazten dituela kultura, arraza eta erlijio guztietako pertsonen artean. Baina
horrek ez gaitu eraman behar, Jesu Kristoren Jainkoarengan fedea izan edo
ez izan berdin diola pentsatzera; are gutxiago jausi behar dugu, besteengandik
ez bereiztera bultzatzen gaituen sentipen lausotuan. Ez ote du sentipen honek
zerbait sakonagoa adierazten: gure fedearen makaltasuna, alegia, distiratsua eta
sendoa den kulturaren aurrean? Kultura honetara egokituak aurkitzen garela
geure bizitzako martxan eta ez garela gauza berarengandik urruntzeko?

Jesusek bihotza arakutzen digu bere begirada sakonaz eta, gure epeltasuna
aitortzen diogunean, eta biziaren eta maitasunaren Jainkoa ezagutzeko eta mai-
tatzeko bere gidaritza eskatzen diogunean, maitatu egiten gaitu. Bere begirada
maitekorraren ukituak eta Berari jarraitzeak askatu egiten gaitu eta aurreran-
tzean ezer ez da berdin. Jainko arduratsuak giza bizitza orotan duen presentzia,
une honetara arte oharkabe igaro dena, lehenengo mailara pasatzen da; zehatza
eta argitsua bihurtzen da; konfiantza handia ematen digu maite gaituen eta gure
bizitzak bere eskuetan hartzen dituen Harengan. Sentipen horrek eraginda oi-
hukatzen du salmogileak:

*Jauna dut argi eta salbamen:
nork ni beldurtu?
Jaunak dit bizia babesten:
nork ni ikaratu?
(27. Salmoa, 1.go txatala)*

Esperientzia eta ikuspuntu horretatik hitz egiten digu Jesusek, eguneroko
gure ardura eta ahaleginak ahaztarazten dizkigu eta funtsezkoa den bakarra da-
karkigu gogora: “*Ardura zaitetze, batez ere, Jainkoaren erregetzaz eta haren
nahia betetzeaz, eta beste hori guztia gehigarritzat emango dizue Jainkoak*”.
Jainkoaren Erreinua bilatzea da benetako gure ahalegin bakarra, hau da, maita-
suna den Jainkoak gure artean duen presentzia eraginkorra eta behin betikoa,
Kristogan gertatu dena, bilatzea, bilaketa horretan Zoriontasunen jarraibidea
aintzat hartuz. Horretaz jabetzen dena konfiantzaz bizi da, Aitaren esku ardura-
tsuetan sentituz, nahiz eta probak eta iluntasunak ez diren faltako.

2. Gure familia

Familiaz hitz egitean, ezin gara xaloak izan, ezta inozoak ere. Inoiz ez da
erraza izan familia eratzea eta aurrera ateratzea. Pazientzia, iraunkortasun eta
sakrifizio handia behar izaten da, zailtasunei, nahigabeei, etsipenei eta, batzue-
tan, arrasto sakona uzten diguten bihotzeko minei aurre egiteko. Dena dela, ge-

hientzat familia –jaio diren familia edo sortu dutena– ondasun guztiz estimatua da eta zerikusi handia du beren bizitzan.

Guztiz deigarria da, balioen hierarkia nahasi eta berregin duen gurea bezalako mundu hain aldakorrean familia izatea, orain ere, gizarte-mailan gehien baloratzen den balioa. Horren arrazoiak, hala ere, erraz antzeman daitezke. Familia da gaur ere gunerik pribilegiatuena, gure bizitzak behin betiko markatzen dituen eta ezerk ase ezin ditzakeen egarria sentiarazten dien zerbait, beste inon ez bezala, esperimenezko: maitasuna den Jainkoagandik zuzenean datorren, eta doakoa eta baldintzarik gabekoa den maitasuna; “maitasuna Jainkoarena” delako, “Jainkoarengan partaide” egiten gaitu. Esperientzia zoragarri hori da benetako giza esperientzia bakarra.

Familian esperimentatzen den baldintzarik gabeko eta doako maitasunaren eta, era berean, maitasun hori etengabe mehatxatzen duen hauskortasunaren esperientzia da Biblia osoan maitasuna den Jainkoaren eta Jainkoarena den maitasunaren ‘atze-oihal’ adierazgarria. Maitasunaren irudi kontaezinak agertu eta berragertu egiten dira, maitemintzearen, batasunaren, desleialtasunaren, desengainuaren, gaitzeste-sentimenduaren, adiskidetzearen, sakrifizioaren, baldintza gabetasunaren eta, batez ere, Jainkoaren maitasunaren garaitezintasun eta ezeztazintasunaren jokia adierazteko.

Bibliak Jainkoaren eta Israel herriaren arteko harremanaren, eta Jainkoaren eta bere kreaturen arteko harremanaren inguruan kokatzen du hori guztia. Profetak, salmoak, Kantarik Ederrena eta, neurri batean edo bestean, Itun Zaharreko gainerako liburu guztiak, hizkera horrez jantzita daude. Ez da harritzekoa, beraz, Jesusek behin eta berriro adieraztea, Berak Jainkoarekin duen harremana aita-semeen arteko harremana dela, eta Elizaren fedea harreman hori Jainko hirukoitzaren funtsezko ezaugarritzat hartzea. Entzun ditzagun arreta biziz Jesusen hitzak:

«Egizu guztiak bat izan daitezela.

Aita,

zu nirekin eta ni zurekin biok bat garen bezala,

hauek ere bat izan daitezela gurekin.

Horrela, munduak sinetsiko du zuk bidali nauzula.

Zuk eman zenidan anitza bera eman diet nik,

bat izan daitezen, gu biok bat garen bezala:

ni hauekin bat eta zu nirekin bat.

Horrela, guztiz bat izango dira,

eta munduak ezagutu ahal izango du zuk bidali nauzula

eta ni neu maitatu nauzun bezala maitatu dituzula berauek ere.

Aita,

zuk eman dizkidazunak

ni nagoen lekuan nirekin egotea nahi dut,

nire aintza,

mundua sortu aurretik maite izan nauzulako

eman didazun aintza, ikus dezaten.»

(San Joanen Ebanjelioa, 17. kapitulua, 21-24 txatalak)

Elizaren fedeak Jainko hirukoitza eta Jainko-Semea aitortzen ditu, giza eta jainkozko izatasunen batasun bikaina duen Semea. Esperientzia jakin batean du jatorria fede horrek: ikasleek Jesusengan ikusi zuten, gizakiaren osotasuna zuela, batetik, eta Jainkoari estu-estu lotuta zegoela, bestetik, eta, beraz, benetako Jainko izan behar zuela nahitaez. Hori behin-behineko eran mundu honetako bere bizitzan ikusi zuten, eta irmoki bere berpizkunde, zerura igotze eta Espiritu Santuaren bidaltzearen ostean.

Ezin dugu inoiz ahaztu, Elizaren fedea Jesusengan erabat islatuak, aitortuak, onartuak, maitatuak, aztertuak, askatuak, salbatuak eta osotuak sentitu ziren ikasleen esperientziatik sortu zela; eta Jesusengan Kristo ikusi zuten, Aitak bidalitako Mesias. Esperientzia hau ospatu egin zuten eta munduari adierazi iragarpen bezala; eta, azkenik, Elizaren benetako eta funtsezko fede bezala zehaztua izan zen eta hotsegina. Fedeak sorleku bakarra du: Jainkoaren izatearen beraren adierazpen den Jesusen baldintzarik gabeko, doako eta neurrigabeko maitasunaren esperientzia pertsonal eta komunitarioa.

Esperientzia hau aitaren eta seme-alaben arteko maitasun erara adierazten da, argi eta garbi utziz, horrela, familia barruko maitasun-esperientziak direla Jainkoa zer den eta nor den ikusi eta esperimendatzeko bide bakarra. Mundua sortu aurretik maite izan duelako ezagutzen duela diotso Jesusek Aitari, hau da, bere betiko maitasuna izan duelako. Maitasuna eta ezaguera, beraz, lotuta daude.

Aita eta ama batek, ez al dute sentitzen, bakoitzak bere erara, kartsuki maite dituztela beren seme-alabak? Haien esanera egoteraino maite dituztela, alegia, haiek maitatzeari ezin utziz eta bizia eman dieten haiekin bat eginda eta haien alde bizia emateko prest egoteraino. Ez al da sortzen apurka-apurka seme-alabengan kontzientzia, gurasoengandik jaso dutenak gaintitu egiten dituela imajina daitezkeen muga guztiak eta, jakina, hautsi egiten duela indarrean dauden balio kulturalen logika? Ez al da egia famili esparrua dela, gabeziak eta behin-behinekotasun gero eta nabarmenagoa izan arren, baldintzarik gabeko eskaintzaren aukera eta beharra erakusten digun esparru bakarrenetakoa dela? Bertan esperimendatzen ditugu, bai maitasunaren mirariaren pentsaezinezko aukerak, baita apurketek eta galera konponezinek eragindako minik biziena ere. Horregatik da familia espiritualtasun-iturri bakarra, nor garen eta zer izatera deituak gauden jakiteko lekua.

Familiak maitasun-eskola bezala duen garrantzi handiak ez dizkigu ahaztarazi behar, ez bere gabezia eta arriskuak, ezta garrantzitsuagoa den zerbait: ezin dugula absolutu eta idolo bihurtu Jainkoari buruz. Argi badago ere errespetatu egin behar dela familiari lotzen gaituen harreman nagusia, ez ote dugu geure familia hermetikoki itxitako esparru bihurtzen geure eta besteen kritika onartzeko, sanoak eta eraikitzaileak badira ere? Familia doako maitasunaren gainezkaldia esperimendatzeko esparru naturala bada ere, ez ote dugu isolatzeko aproposa den gordeleku bihurtzeko arriskua, horrela pobretzen, banatzen eta indartsuenaren legea bultzatzen duen kultura indibidualista sustatuz? Ondorengo testuan, gure familiak Jainkoaren presentzian bizi ote diren galdetzeko diosku Jesusek, Bera baita familiak eratzen dituen maitasunaren iturri eta diren guztien erreferentzia:

Jesusen ama eta anai-arrebak iritsi ziren. Kanpoan gelditurik, deiarazi egin zuten. Jende asko zegoen haren inguruan eserita, eta esan zioten:

– Adizu, ama eta anai-arrebak kanpoan dituzu zeure bila.

Hark erantzun:

– Nor dira nire ama eta nire anai-arrebak?

Eta, inguruan eserita zituenei begiratur, esan zuen:

– Hauek ditut nik ama eta anai-arreba. Jainkoaren nahia egiten duena, horixe dut nik anaia, arreba eta ama.

(Markosen Ebanjelioa, 3. kapitulua, 31-35 txatalak)

Kontakizunak inguruabarrekin jokaten du, funtsezko puntua argi eta garbi esateko: Jainkoa da, azken batean, gure Jaun bakarra eta Berari bakarrik zor diogu esanekotasuna. Horregatik, Jesusen familia Bera dagoen esparrutik desberdina den beste leku batean dagoela diosku kontakizunak: Bera “barruan” dago, entzuten dion jende askok inguratzen duela; beraiek, berriz, “kanpoan” geratzen dira. Horregatik, ikuspegi desberdinetan daudela adierazteko, ez dute beraien artean zuzenean hitz egiten, bitartekarien bidez baizik. Familiak, beraren “bila” dabiltzala esatera bidaltzen du norbait; Berak, ordea, bere erabateko askatasuna eta misioa berresten ditu: bere familia ikasleek osatzen dutena da, hau da, Berari entzuteaz gain, beraren antzera, Aitaren borondatea bereizi eta betetzen dutenak dira bere familia.

3. Gure erantzukizuna guztion ongizateari dagokionez

Gure eguneroko eginkizun-sortaren barnean, lana eta familiaz gain, guztion ongizatearen alde gizartean eta politikan ditugun erantzukizunen gauzatzea ere gure espiritualtasunaren iturri garrantzitsua da. Erantzukizun horri atzea ematea, funtsezko datu bati ateak ixtea da: mundu honetan bizi garen pertsona guztiok Jainkoaren kreatura garela bereizketarik gabe eta inor baztertu gabe, Jesusek iragartzen digun eta dakarkigun Erreinuan parte hartzeko deia jaso dugula. Ondorioz, gure zerbitzua gauzatzeko sena, gauzatze horretako funtsezko ardura eta gizarte orokorrari dagokionez duen esanahia egoki ulertu behar dugu.

a. Maitasuna, zerbitzuzko jarrera bezala

Guztionez ongizatearen aldeko gure lana Jainkoaren maitasunetik dator zuzenean eta, aipatu dugunez, Jainkoa gauza guztien gainetik eta lagunurkoa geure burua bezala maitatzeko agindu bikoitzean islatzen da. San Joanen ebanjelioak aginduaren bigarren zatia adierazten du kristau-jarrerari dagozkion hitz berariazkoagoekin, Jesusek bere ikasleei pazko afarian esaten dizkien agurreko hitzekin:

Hau da nire agindua:

maita dezazuela elkar

nik maite izan zaituztedan bezala.

(San Joanen ebanjelioa, 15. kapitulua, 12. txatala)

Aitak betieran maite duela dakien eta Aita Maitasun horretatik ezagutzen duen Jesusek “azken ondorioetaraino” maite ditu bere ikasleak eta gizateria

osoa, bere bizia guztiongatik eman ez eta, era berean, elkar erabateko maitasunez, azken ondorioetaraino maitatzeko dei eginez. Agindu hau Jesusek ikasleei oinak garbitu zizkiela kontatzen duen pasartearen ostean dator. Kontakizun esanguratsua da gure besteenganako zerbitzuaren sena ulertzeko:

Jesusek bazekien dena bere esku jarri ziola Aitak, eta Jainkoarengandik etorria zela eta Jainkoarengana zihoala. Afaltzen ari zela, mahaitik jaiki, soingainekoa erantzi eta, esku-zapia harturik, gerrian lotu zuen. Ondoren, ura konketara bota eta ikasleei oinak garbitzen hasi zen, eta gerrian zuen eskuzapiaz lehortzen.

Simon Pedroarengana iritsi zenean, honek esan zion:

– Jauna, zuk niri oinak garbitu?

Jesusek erantzun zion:

– Ni egiten ari naizena zuk ez duzu orain ulertzen, geroago ulertuko duzu. Pedrok berriro:

– Zuk ez didazu sekula niri oinik garbituko.

Jesusek erantzun:

– Garbitzen ez bazaitut, ez duzu nirekin zerikusirik izango.

Simon Pedrok esan zion:

– Jauna, orduan, oinak ez ezik, eskuak eta burua ere bai.

Oinak garbitu zizkienean, soingainekoa jantzi, berriro mahaian eseri eta esan zion:

– Ulertzen duzue egin dizuedana? Zuek ‘Maisu’ eta ‘Jauna’ deitzen didazue, eta arrazoi duzue, halaxe bainaz. Beraz, nik, Jauna eta Maisua naizen honek, zuei oinak garbitu badizkizuet, zuek ere garbitu oinak elkarri.

(San Joanen ebanjelioa, 13, kapitulua, 2-9 eta 12-14 txatalak)

Pasarte puzko afarian gertatzen da; horrelakoetarako ezarritako erritualaren arabera ospatzen den ekitaldi solemnea da. Bertan, Jesusek ustekabeko eta ohi ez bezalako zeinua egiten du. Jesusen ekintzek zeinua nabarmendu egiten dute: mahaitik altxatu egiten da, soingainekoa erantzten du, esku-zapia hartu eta gerrian lotzen du, ura konketara botatzen du, ikasleen oinak garbitzen ditu, oinak gerrian zuen esku-zapiaz lehortzen dizkie. Zerbitzariak egon ohi ziren zutik, nagusiek jaten zuten bitartean. Jesusek, altxatzean, zerbitzari dela adierazten du. Soinean zuenaren berariazko duintasuna adierazten zuen jantziak. Erantztean eta esku-zapia gerrian lotzean, Jesus beheratu egiten da, bere maila galdu egiten du, San Paulok Filipokoei idatzitako Gutunean aipatzen duenez, zerbitzari bihurtzeko. Egiten dituen zeinu guztiak zerbitzariarenak dira.

Pedroren gogortasun izuan ikusten da gertaera ohi ez bestelakoa dela. Jesusek Pedrori ematen dion erantzun zorrotzak zeinuaren erabateko garrantzia erakusten du, bere misioaren ezaugarriak agertzera emanaz: guztion zerbitzari bihurtu, azken ondorioetaraino. Erabateko zerbitzu hau onartzen duena baizik ez da partaide Jesus den guztian. Zeinua argituta geratzen da aho-zabalik geratu ziren ikasleentzat, Jesusek azalpenak ematen dizkienean: Jauna eta Maisua den Hark haien zerbitzari bihurtu nahi izan du, argi eta garbi erakusteko beraiek ere elkar zerbitzatu behar dutela, Maisuaren eredia aintzat hartuz.

Jaunaren eta zerbitzariaren eginkizunak alderantziz jartzearen irakaspen praktikoa hau unearren garrantzi eta urgentziagatik egiten da: Jesusek bazekien “dena bere esku jarri ziola Aitak, eta Jainkoarengandik etorria zela eta Jain-

koarengana zihoala". Jesusek ez dio bere erantzukizunari uko egin nahi eta, ibilbidearen azkenean dagoenez, bere karta guztiak mahai gainean jarri nahi ditu, testamentu erara, bai bere misioaren adiera bai ikasleek hartu behar duten norabidea argitasun beteaz aurkeztuz. Ebanjelioetan hainbestetan agertzen den ideia honek, hau da, lehenengoak azkena izan behar duela, hau adierazten digu argitasun osoz: printzipioz, ebanjelioa bizitzeak eta testigantza eginez komunikatzeak besteen onaren alde lan egitea dakarrela, zerbitzu erradikal bezala, tradizioz agintariei eta menpekoei egotzitako egitekoak alde batera utziz.

b. Txikienen ondoan egon

Jarrera erabateko zerbitzuzkoa bada, zerbitzu horren orientazioa ere ez da gutxiago: txiroak, makalenak, haurrak, alargunak, umezurtzak, gaixoak, gose-tiak, behartsuenak dira Jesusen kutunenak. Ez da justizia bakarrik, baizik, funtsean eta batik bat, doakotasun kontua edota, hitz erlijiosoagoz adierazteko, grazia kontua; baina pertsona bakoitzaren bihotzean bertan inprimatuta dagoen grazia. Honi dagokionez, samariar onaren parabola argitzailea da, Jesusek 'nor da nire lagun hurkoa?' galderari zein erantzun ematen dion jakiteko:

Jesusek erantzun zion:

– Behin batean, gizon bat zihoan Jerusalemdik behera Jerikorantz eta lapurren eskuetan erori zen; zeuzkanak kendu eta, egurtu ondoren, alde egin zuten, erdi hilik utziz. Apaiz bat gertatu zen, hain zuzen, bide hartan behera, eta, gizona ikustean, bidetik okertu eta aurrera jo zuen. Gauza bera egin zuen handik igaro zen tenpluko lebitar batek ere: ikustean, bidetik okertu eta aurrera jo zuen.

Baina bidaian zen samariar bat bertara iritsi eta, hura ikustean, errukitu egin zitzaion. Hurbildu eta zauriak lotu zizkion, olio eta ardoz igurtzi ondoren; gero, bere asto gainean ezarri, ostatura eraman eta bere ardurapean hartu zuen. Biharamunean, zilarrezko bi txanpon atera eta ostalariari eman zizkion, esanez:

– Zain ezazu eta, gehiago gastatzen baduzu, hurrena natorrenean ordainduko dizut.

Zure ustez, hirurotan zeinek jokatu zuen lagun hurko bezala lapurren esku eroritako gizonarekin?

Lege-maisuak erantzun zion:

– Hartaz errukitu zenak.

Jesusek esan zion, orduan:

– Zoaz eta egin zuk ere beste horrenbeste.

(Lukasen ebanjelioa, 10. kapitulua, 30-37 txatalak)

Mugimenduz beterik dago berriz ere pasarte, pertsonaia desberdinen jarrerak eta beraien ekintzen zentzua adierazteko. Protagonista pasibo baten inguruan gertatzen da ekintza: bizitzako eginkizun arruntzat har dezakegun bidaian, Jerusalemdik Jerikorantz doan bidaiaria da protagonista pasiboa, gizon bat; eta, gauza garrantzitsua, ez dakigu ezer ere hartaz. Nolabait esatearren, pertsonaia anonimoa da, etiketarik gabekoa, inolako galoi edo erlaziorik ez duena, neutroa; ezaugarri bat besterik ez du: gizakia dela. Kontakizunaren sarreran datu aipagarria dago: beste behin ere, gure bizitza eta gertagarrien sinbolo den eta edozein gertakizun izan daitekeen bidean gertatzen da ekintza garrantzitsu hori.

Eszenatokian agertzen diren hurrengo pertsonaiak lapurrak dira: zituenak kendu, egurtu eta, erdi hilik utziz, alde egin zuten. Gure pertsonaia neutro eta anonimoak, bat-batean, protagonismoa hartzen du, gaizki tratatzen dutelako, aldean zeraman guztia kentzen diotelako eta hiltzeko zorian geratzen delako; beste era batera esanda, gure munduko biztanle anonimo gehienen antzera, bizitzak eta bidegabekeriak erabateko behin-behinekotasun eta behartasunean jarri duten pertsonaren sinboloa da.

Ondoren, tenpluko apaiza eta lebitarra agertzen dira. Tenplua eta Jainkoaren Agindu bereziak dituen Israel herriko aspaldiko erakunde bat ordezkatzeko dute eta, horrexegatik, gizarte maila esanguratsua eta ospea dute apaizek eta lebitarrek. Bizitzako bidean egoera negargarri horretan dagoen pertsonarekin topo egiten dute, baina, ikusteaz batera, bide bazterretik aurrera egiten dute. Ez dute egoera erabat gogaikarri hark zipriztintzerik nahi, bertan nahasiz gero, arazoak eta buruhausteak baino ez zituztelako tenpluan izango.

Hementxe aurkezten du Jesusek protagonista ekintzaile esan diezaiokegun pertsonaia. Ez da judua, samariarra baizik, kontakizunaren garaiko juduek heretikotzat hartuko zuketena: haien ustez, juduek eta Jerusalemgo tenpluak irudikatzen zuten egiaren aurrean okerreko bide erlijiosoa hartu zuten samariarrek. Samariar hura ere, gogor astindu duten eta hilzorian utzi duten bidaiariarengana eraman du bizitzako bideak. Bistakoa da, norbaitek laguntzen ez badio, hil egingo dela ezinbestean. Horrela ikusten du berak, eta, apaiz eta lebitarrak ez bezala, arazo hura berari ere badagokiola uste du eta errukitu egiten da.

Etsipenak hartutako bidaiarekin fisikoki, moralki eta ekonomikoki nahasten dela adierazten digute haren egintzek: hurbildu egiten da, zauriak lotzen dizkio, olio eta ardoa botaz, bere asto gainean ezartzen du (berak zuen pribilegio egoeratik behartsuaren alde beheratu egin zela adierazten du horrek), ostatura eraman eta zaindu egiten du. Azkenik, berriz ere bidaiari ekin behar diotenean, erabakirik uzten du guztia zauritua zaindu eta senda dezaten.

Lagun hurkoa hitzak bi pertsonen arteko nolabaiteko erlazio hurbila adierazten badu ere, pertsonaia guztiak sinboliko eta anonimo dituen irakaskuntza honen muinak kontrakoa adierazten du: lagunurkoak, bidegabe astindutako eta larri zauritutakoarekiko hurbileko erlazorik ez izateaz gain, arrazoi historiko eta erlijiosoengatik, zaurituarengandik urrun sentitzeko arrazoi sendoak ditu. Zaurituaren hurko izan beharko zuketena, hain zuzen ere, heretikoak ez baizik guztiz ortodoxoak direnak, horiek begiratzen dute beste aldera, egoeraren larritasunaz ondotxo jabetu badira ere. Samariarra, ostera, hurreratu egiten da, gorputzez eta arimaz, errukitu egiten delako, eta buru-belarri konprometitzen da zaurituari laguntzen, bere sendaketa ziurtatu arte, hau da, hura bizitzako bidera berriz sartu arte.

Jesusen azken aginduak: *“Zoaz eta egin zuk ere beste horrenbeste”*, du-rundi gogorra egiten du gure belarri eta kontzientzietan, eta gutariko bakoitzari zein gure elkarteei zalantzan jartzen dizkigu nahitaez gure jarrerak eta jokabideak. Ikusi nahi al ditugu, hau da, jabetu nahi al dugu hurbileko eta urruneko hainbeste lagunek jasaten dituen gaitz eta bidegabekeriez? Ausartzen al gara gure eginkizun, ahalegin, larritasun eta interesei hainbeste arreta eskaini ez eta errukiari lekua uzten, hau da, bestearen samina nork bere samintzat hartzen?

Gure errukia, sentimendu hutsa da ala eraginkorra? Konprometitzen gara sufritzen dutenei denboraz, maitasunez, zainketez eta diruz laguntzen? Harremanik ez dugun haiei edo arrazoi historiko nahiz ideologikoengatik areriotzat ditugunez errukitzeko gauza ote gara? Gure elizbarrutietan, denok dakigu auzi hau ez dela erretorika hutsa eta azterketa eta bihozberritze sakonera garamatzala.

Eukaristiako prefazioetako batek hau dio: “Gaur ere, samariar onarena eginez, beren gorputzean nahiz espirituan sufritzen dauden guztiengana hurbiltzen da, eta sendatu egiten ditu beroien zauriak errukiaren olio eta itxaropenaren ardoa erabiliz sendagai”. Ezagutuko ditugu, seguruenez, Jesusi jarraituz, gauza bera egiten duten gizabanako eta taldeak. Baina zinikoa litzateke nahiko egiten dugula pentsatzea. Sakoneko galderak asaldatu egiten gaitu: Prest ote gaude aldatzeko, lagun hurko gehiago izan ez dadin bizitzako bide ertzean gogor astindua eta bertan behera utzia?

Pertsona garenez eta Eliza garenez, kezkarri eta deigarritzat sentitu behar dugu Jesusen agindua. Berak, gure bizitzetako bidean aurkitzen ditugun behartsu eta minduak aparteko eran maitatzeko eskatzen digu. Sufrimendua ez da estatistiken bidez neurtzen; zehatza da eta geure ondoan dugu. Beste aldera begiratu ez ezik, gure ongizatearen gizartean bertan, astinduta eta bidean botata daudenei errukiz begiratzen diegunean antzematen dugu: gosetuak, egarrituak, biluzik daudenak, etorkinak, gaixoak eta presoak. San Mateoren Ebanjelioko Azken Epaietako “txiki” hauei beste hauek gehitu behar dizkiegu: zaharrak, etxerik eta familiarik ez dutenak, terrorismoaren biktimak eta hauen senideak eta, arrazoi batengatik edo bestearengatik, bizitzan hilda sentitzen diren guztiak. Pertsona horiek Jesusen aurpegi mindua erakusten digute eta horien aurrean, gizabanako eta Eliza garen aldetik, geure axolagabekeriagatik barkamena eskatzeko, errukitzeko eta samariar onaren antzera jokatzeko deia entzuten dugu.

Zuzentasun eta elkartasun unibertsalaren alde atsedetik gabe jarduten jakin behar dugu. Kontrakoa, bere errailetan errukia sentitzeko gero eta zailtasun gehiago duen, bere nahi bakarria “aurreratzea” den eta bere aberastasunaren %0,7 lotsagarria munduko behartsuenekin partekatu nahi ez duen gizarte ase honetako gehiengoaren iritziaren alde joateak gizatasuna kentzea eta gure fede pertsonal eta komunitario urria makaltzea besterik ez digu ekarriko.

c. Hemen jardun, Jaunaren behin-betiko etorreraren zain

Horregatik, beste urrats bat eman behar dugu guztion ongizateari dagokionez dugun erantzukizuna aztertzeko. Urrats honek lagundu behar digu ulertzen Jesusek “mundu” deitzen duen horretara zerk hurbiltzen gaituen eta mundu horretatik zerk aldentzen gaituen. Itzul gaitezen horretarako, Jesusek, ikasleei azken agurra egitean, Aitari zuzentzen dion otoitzera:

*Aita Santu horrek,
zaindu zeure ahalmenaz zuk eman dizkidazunok,
bat izan daitezen gu geu bat garen bezala.
Hauekin izan naizen bitartean,
neuk zaindu ditut eman dizkidazunok.
Zure mezua adierazi diet nik;*

*baina munduak gorroto die,
mundukoak ez direlako,
neu ere mundukoa ez naizen bezala.
Ez dizut eskatzen mundutik ateratzeko,
Gaiztoarengandik babesteko baizik.*

*Ez dira mundukoak,
neu ere mundukoa ez naizen bezala.
Har itzazu zeuretzat egiaren bidez:
zure mezua egia da.
Mundura bidali ditut
zuk bidali ninduzun bezala.*

(San Joanen ebanjelioa, 17. kapitulua, 11-12, 14-18 txatalak)

Ebanjelioko testu hau, gutxienez kezkarri eta deserosoa da, bai bere eduki eta esanahiagatik bai bere ondorioengatik. San Joanen ebanjelioaren gai nagusia aurkezten digu: munduaren eta Jesusek eta haren ikasleek irudikatzen duten guztiaren arteko tentsioa. Batasun eta egia betea bigarren esparru honi dagozkio. Testua kezkarria da, munduak Jesusen ikasleak gorroto dituela esatean, jarraipenaren bidea ez sozialki ez existentzialki kaltegabekoa ez dela adierazten digulako eta, benetan, neketsua dela jakinarazten digulako.

Deserosotasuna, gizarte-kulturaren mintzairan “normal” ez izatearen zailtasunetik dator eta, batez ere, munduko eta gure kulturako hiritar garena sentitzetik, zail egiten zaigularik, Jesusen ikasle bezala, geure burua gizarte eta kultura mailan indarrean dauden terminoetatik kanpo ikustea. Horregatik, zintzotasunez aztertu behar dugu geure burua. Sentitzen ote dugu munduak baloratzen duenetik benetan desberdin izan beharra? Prest ote gaude horretarako? Ez ote dugu bilatzen gure gizarteratze osoa, arrakasta profesional eta ekonomikoa irrikatuz, gainera? Zenbateraino gara alternatiba, geure pentsamolde eta bizimoduan? Zenbateraino gaude prest gure bizimodua eta gizartean jarduteko modua ebanjelioaren arabera aldatzeko?

Gero eta anitzagoa den eta kristau-fedetik gero eta aldenduago dagoen gizartean ikasle bezala dugun misioa ulertzeko lagungarri diren beste elementu azpimarragarri batzuk azaltzen dira Jesusek Aitari zuzentzen dion otoitz honetan. Ez Jesus ez gu mundu honetakoak ez garena esateaz batera, mundutik ez ateratzeko eta gaitzetik askatzeko eskatzen dio Aitari bere otoitzean. Jainkoak ez dio uko egiten beras sorrerazitako munduari, alderantziz baizik, San Joanen ebanjelioan bertan ikus dezakegunez:

*Izan ere, Jainkoak hain maite izan zuen mundua,
non bere Seme bakarra eman baitzion,
harengan sinesten duenik inor gal ez dadin,
baizik betiko bizia izan dezan.
Zeren Jainkoak ez baitzuen Semea mundura bidali
mundua kondenatzeko,
haren bitartez salbatzeko baizik.*

(San Joanen ebanjelioa, 3. kapitulua, 16-17 txatalak)

Aitak Jesus bidaltzearen eta Jesusek berak gu bidaltzearen jatorria Jainkoak munduari dion maitasunean eta mundutik bekatua, gaiztakeria eta herio-

tza kentzeko nahian dago. Horregatik eskatzen dio Jesusek Aitari ez gaitzala mundutik atera, gaiztakeriatik babes gaitzala baizik. Helburua ez da mundua kondenatzea, mundua salbatzea baizik. Gure arazoa, hala ere, gizabanako eta kristau-elkarte bezala, mundua kondenatzeko joera baino gehiago, munduarekin bat egiteko joera da. Nola izan gaitezke gatz eta argi gure kulturaren nagusi diren balio eta bizimoduetatik ezer gutxi bereizten bagara?

Ebanjelioa bizi eta, horrela, hots egin ahal izateko, bertako balioak –horiek iragartzera eta hastera etorri zen Jesus– geure egin behar ditugu. Horregatik, ikasle garenez, Jainkoaren Erreinuko hiritar gara, gure munduarekin inola ere identifika ezin daitekeen Erreinuko kide, Jesusek Pilatoren aurrean aitortu zue- nez. Sinesten al dugu benetan, Jesusekin batera, gure Erreina mundu honeta- koa ez dela? Funtsezko gaia da hau, geure burua gizarteari eta bertan dugun egi- tekoari dagokionez ulertzeko.

Zalantzarik gabe, geure indar guztiez lagundu behar dugu guztion ongiza- tea lortzeko, batez ere baztertuen daudenetzat Jesusekin batera errukia izanez eta haien alde jarduten saiatuz. Eta horrek, politikan jardunez Jesusi jarraitzeko eta ebanjelioa bizitzeko deia jasotzen dutenetzat balio du batik bat, berez de- nen aldeko zerbitzua delako eta aukeratzen duena nobletzen duelako; hala ere, guztion ongizatea lortzeko elkarlan hau, gure bihotza eta itxaropena Erreinan jarria dugula egin behar dugu. Erreinu horretako balioek ez dute mundu hau gobernatzen. Tentsio eta itxaropenez bizi ditugu, Jesu Kristoren behin-betiko etorrera irrikatuz. Honela bakarrik eskainiko diogu gure munduari Jesusek agindu digun zerbitzua.

V. BOKAZIOA ELKARTEAN BIZI

Idazki honetan behin eta berriro diogunez, Jesusen antzera, gure espiri- tualtasuna eguneroko eginbeharretan bizitzeaz gain, elkartean ere bizi behar dugu. Espirituaren gidaritza mota hau onartzea ezinbestekoa da gure garaian. Nola lortu, bestela, bere burua garaitzat duen gizarte honen indarrak gu ez inguratzea eta irenstea? Jarraipen-mota desberdinei eta bokazio bakoitzaren berezitasunei uko egin gabe, gutariko inork ere ezin du fedea bere airera bizi, bakarka, zeren eta bokazio orok elkartearen esperientzia behar baitu, azken ba- tean, elkartean sustraitzen eta kokatzen delako eta bertan ematen duelako fruitu. Esperientzia komunitario hau, era berean, era askotakoa izan daiteke, guk hemen hiru aipatuko ditugularik: familia, erreferentzia elkarteak eta parro- kia. Horietako bat ere ez da ez baztertzaila ez eskusiboa, hirurek elkar osatzen dute.

1. Familia, oinarrizko elkarte

Aurreko puntuan, familia gure eguneroko eginkizunetan espiritualtasun iturri dela esan dugu. Orain espiritualtasunaren iturri komunitario bezala az- tertu nahi dugu. Beste aukera betean ere landu genuen gai hau sakontasunez, *Familia aurkitzea gaur egun* 1995ko Pazkoko pastoral idazkian. Orduan aipa- tzen genituen puntuetako batzuk gogora ekartzea komeni da.

Gure fedearen arabera, sakramentua da Ezkontza. Bertan, Jainkoaren graziak, haren maitasun sortzaile eta garaiezinak, bizitza-elkartea sortzen duen une berean maitasunagatik bat egiten duten haien sendotasuna eta bokazioa izenpe-tzen du. Familia guztientzat da funtsezkoa alderdi komunitario hau. Familiaren arrakasta kide guztien arteko batasun esperientzia etengabe sustatzetik dator, nahiz unerik atseginen eta argitsuenetan nahiz eguneroko bizitzan eta, batez ere, samin eta zailtasunez jantzitako unetan.

Esperientzia horrek zentzu betea izan dezan, bere iturria, hau da, Ezkontza sakramentuaren grazian isuritako Jainkoaren maitasuna izan behar du erreferentziatzat. Ikuspuntu horretatik, familiaren bizitza komunitarioan bere habia egin du Espirituak eta Espiritu horrek gidatzen gaituela esperientziatzen dugu. Espirituaren ezustekoei irekirik bizitzea eta haren gidaritza onartzea eskatzen du horrek, ebanjelioko pasarte honetan kontatzen denez:

Jesusen gurasoak Jerusalemera joan ohi ziren urtero errones Pazko Jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituenean, jaietara joan ziren, ohi bezala. Jaiak amaiturik gurasoak etxera abiatu zirenean, Jesus haurra Jerusalemen gelditu zen, haiek jakin gabe.

Erroneskideen artean zelakoan egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren ahaide eta ezagunen artean. Eta, aurkitzen ez zutelarik, Jerusalemera itzuli ziren bila.

Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu zuten, lege-maisuen erdian eseria, entzun eta galde; entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden erantzunetan azaltzen zeuen argitasunagatik. Ikusi zutenean, harrituta gelditu ziren gurasoak, eta amak esan zion:

– Seme zergatik egin diguzu hori? Ikusi zeinen larri genbiltzan aita eta biok zure bila!

Hark erantzun zien:

– Zergatik zenbiltzaten nire bila? Ez al zenekiten nik neure Aitaren gauzetan jardun behar dudala?

Baina haiek ez zuten ulertu zer esan nahi zuen.

Jesus beraiekin Nazaretera jaitsi eta beraien menpe bizi izan zen.

Amak gogoan hartzen zituen gertakari guztiok.

Jesus haziz zihoan bai jakinduriaz, bai gorputzez, eta Jainkoak eta gizakiek gero eta gogokoago zuten.

(San Lukasen ebanjelioa, 2. kapitulua, 41-52 txatalak)

Nazaretoko familia santuaren bizitza Josek eta Mariak sinesten zuten Jainkoaren inguruan garatzen zela batez ere esaten zaigu kontakizunaren hasieran. Pazkoaren ospakizunak eta Jerusalemera igotzeak markatzen dute urtero erreferentzia hori. Badago gauza aipagarri bat: fedearen eta berri onaren bizi-pena ez da zerbait arrazionala eta abstraktua; esanahi bereziko jarduera jakin batzuei lotua dago, eta, hauekin gorputzez eta arimaz bat egiten dugunez, gure nortasuna eratzen dute.

Jarduera esanahitsu batzuen zehazpenik gabe, erraz eror gaitzke gure izate osoa biltzen duen fede biziarekin zerikusi handirik ez duen arrazionalismo erlijiosoan. Arrisku hau ez da teorikoa, guztiz erreala baizik, arrazoia gorai-patzen duen eta bihotza eta borondatea baztertzen dituen kulturaren murgilduak gauden guztiongan. Ebanjelioari eta Jesusi jarraitzea gure familietan, noizean behin jarduera sinboliko batzuk egin arren, praktika erlijiosorik gabe bizi deza-

kegula uste al dugu? Familia bizitzako gauzarik garrantzitsuenak Jainkoaren maitasun emailearekin lotzeko ohiko otoitzaldirik gabe egin ote dezakegu? Eukaristia gure familietako gertakizun nagusi bezala erregularitasunez ospatu gabe egin ote dezakegu? Bide horretatik, gure fededun bizitzaren trinkotasuna eten-gabe eta nahitaez ahuldu eta murriztu egiten da.

Ez dugu ahazten gaur egungo familia askotan, arrazoi askorengatik, kideek jarrera desberdinak dituztela fedeari dagokionez. Bi ezkontideek bere seme-alabak Jesusen jarraipenean hezi nahi dituztenean ere agertzen dira gorago aipatu ditugun zailtasunak fedearen transmisioan. Kasu horietan, guraso askok ekin eta ekin jarraitzen du, fedea beren seme-alabengan sustrai dadin. Jakin badakigu nola sufritzen duten lortzen ez dutenean. Zalantzarik gabe, guztiz lagungarria da eginbehar zail horretarako, seme-alabek txikitatik esperimintatzea familiaren bizitzan eta familia-bizitzako gertaera esanguratsuenetan elkartebizitzan bizitako fedearen garrantzia. Esperientzia horrek lotzen ditu bizitza eta fedea, ikaskuntza erlijiosoari esanahi sakona emanez.

Ez da inoiz erraza izan familian eratzten diren askatasunaren eta bokazioen arteko jokia kudeatzea. Horixe erakusten digu Jesusek, gurasoei ezer esan gabe, hamabi urterekin, Jerusalem gelditzeko erabakia hartzean, gurasoek etxerako bideari ekiten dioten bitartean. Une honetan ematen zaigu beste datu garrantzitsu bat: familia ez da bakarrik igo Jerusalemera, beste batzuekin igo dira karabanan, fedearen bizipena eta honi loturako erromesaldia familian bizi direla adieraziz, baina ez familian itxita, elkarre zabalagoko kide bezala baizik.

Hurrengo pasarteak bi zati ditu. Lehenengoan Jesusen bokazio eta misioa aurreratzen dira berriz ere: Israelgo benetako Maisu izatera deitua izan da. Hori adierazten du maisuen harridurak tenpluan. Aurkitu aurretik igarotzen diren hiru egunak Jesusen heriotza eta piztueraren aipamen argia dira. Pasartearen bigarren zatiak ezohiko gertaeraren berri ematen digu: haurrak ez die uzten, harriturik eta larriturik dauden gurasoei bere jokaeragatik agiraka egiten; berak egiten die agiraka gurasoei, ez dutelako bere misioa ezagutzen: *“Zergatik zenbiltzaten nire bila? Ez al zenekiten nik neure Aitarenean gauzetan jardun behar dudala?”* Jose eta Mariak ez zuten, noski, erantzun hori ulertu, baina haurren jarrerak pentsatzera eta hausnartzera bultzatu zituen.

Kontakizunaren bukaerak jakinduria sakona gordetzen du eta familiako kide guztiengan du eragina. Jesus Jerusalemera jaisten da gurasoekin bere ordurako prestatzeko. Eta esanekotasunez egiten du, haien menpe biziz. Jainkoak bere familiaren inguruan zuen borondatea Mariak etengabe aztertzen zuela esaten zaigu eta kontu handiz gordetzen zituela bihotzean ulertzen ez zituen, baina senak garrantzitsuak zirela ematen zion gertaera eta gauza guztiak. Azkenik, pertsonaren hazkundean funtsezkoak diren hiru alderdiak egotzen zaizkio Jesusi: Jesus haziz zihoan gorputzez, jakinduriaz eta graziaz, hau da, fisikoki, errealitatearen, bere buruaren ezagutzan eta espiritualki.

Merezi du kontakizun hain aberats honen elementurik garrantzitsuenak nabarmentzea. Azkenetik hasita, argi izan behar dugu gure familietan, haztea ez dela osasuntsu egotea eta bizitzan arrakasta izateko ahalik eta ondoen prestatzea bakarrik. Familia-elkarre benetako kristau elkarre eta ebanjelioa bizitzeko eskola bihurtuko da, kide guztiak jakintza eta arrakastan ez ezik, jakinduria eta

maila moralean haztea bilatzen duenean eta, batez ere, grazian, hau da, pertsona eta familia ororen iturri eta zeru-muga den Jainkoaren maitasunean haztea bilatzen duenean.

Nabarmentzeko moduko bigarren elementua bokazioari dagokio. Jainko hirukoitzaren maitasunean gertatzen den bezala –batasun perfektuak ez du balio gabetzen, sortzen eta sustatzen baizik, Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren berezitasuna– familia-elkarteak ere kide bakoitzaren berezitasuna sortzen eta sustatzen du. Aita-amek onena nahi dute beren seme eta alabentzat eta aparteko antsiaz eta kezka bizi dute haien etorkizunaren ziurgabetasuna.

Ez da zaila, hala ere, gurasoen ustez, seme-alabak bizitan jarrera onean jarriko dituen arrakasta profesional eta ekonomikoa bermatuko dien onena automatikoki identifikatzea. Zein da identifikazio horretan erabiltzen den balio-eskala? Ba al du zeresanik gure familietan, kideetako bakoitzak Jainkoa eta besteak hobeto zerbitzatzeko bere bokazioa aurkitu behar duela dioen printzipioak? Ez al da egia seme nahiz alaba batek, ideal guztiz zintzoez sustatutako, baina gizarte eta ekonomia aldetik gutxi baloratutako bokazioari erantzuteko nahia erakusten duenean gurasoek aparteko larritasuna sentitzen dutela eta asmo hori burutik kentzen saiatzen direla? Ez al da egia, kasu askotan, biziera erlijiosorako bokazioak aparteko larritasun eta erresistentzia eragiten duela gurasoengan? Nola uler daiteke hori bere burua kristautzat duen eta ebanjelioa estimatzen duen familian?

Hirugarren elementu bat gehituko diogu aurrekoari. Dena ez da argia familia elkartean, nahiz eta Jainkoaren borondateari leial erantzun. Batzuetan, bilaketa hori da, hain zuzen ere, nahasmendu eta iluntasun iturri. Horixe gertatzen zaie Jose eta Mariari, Jerusalemgo gertakariaren ostean, inolako arazorik sortu gabe, gauza guztietan haien menpe hazten den beren semearen portaera harrigarriarekin. Edozein familia arruntetan ugariak diren iluntasun eta nahasmenduzko une horiek ere fedean eta ebanjelioarekiko leialtasunean hazteko balio dute, Mariarekin gertatzen den bezala, Jainkoari lotzen bazaizkio eta beren adiera sakon hausnartzen laguntzen badigute. Sakonean, berak, hori egitean, semeari jarraitzen dio.

Gure bizitza ebanjelikoak, Espirituak gidaturik Jesusi jarraitzeak, funtsezko iturrietako bat familia-elkartean duela erakusten digu kontakizunak bere osotasunean. Familia-elkartea hartu behar dugu ez kristau elkarte bakartzat, lehenengo eta benetakotzat baizik, edo “etxeko elizatzat”, Jainkoaren maitasunean sustraituta. Horrela, elkarte hori zentzuz beteriko elkarte bihurtzen da eta bertan bizi dezakegu berri ona: Kristo Jesusengan agertzeraz emandako Jainkoaren maitasunak biltzen, aldatzen eta indarrez eta itxaropenez betetzen gaituela.

2. Erreferentzia elkarteak

Elkarte bizitza izan da Espirituak gure Elizari sortu zenetik eman dizkion dohainetariko bat. Lagun askok jaso du, mendez mende, Berri Ona elkartean bizitzeko deia. Monasterioetako ordenak, erlijioso-familia desberdinak eta horretarako sortutako era askotako institutuak altxor eta erreferentzia dira Kristoren Eliza osatzen duten era bateko eta besteko bokazio eta karismen artean. El-

karte-bizitzarako dei honetatik sortu izan da “elkarte esparru” asko irakaskuntzaren, osasunaren eta karitatearen arloan. Eman dituzten fruitu ugarietz gain, errealitate hauek funtsezkoak izan dira eta dira Elizaren berrikuntzarako eta Jesusi jarraitzeko deia historiako une bakoitzean gauzatzeko.

Ebanjelioarekiko leialtasuna bizi izateko, aparteko garrantzia du Espirituaren dohain honek, anitza, modernoa, aberatsa den, guztiz sekularizatua dagoen gizarte demokratiko honetan. Idazki honetan behin baino gehiagotan aipatu denez, gaur berri ona bizi eta hots egiteak gure espiritua eratzea eskatzen du, bereizten eta jagole edo zaintzaile izaten jakin dezagun, Jainkoarenganako eta lagunurkoarenganako erabateko leialtasunean irmo irauteko. Behar horri erantzuteko, Espirituak berak sustatu ditu gure artean jarraipena bizitzeko era berriak, batez ere laikoen artean.

Duela gutxi arte, bizitza-azterketarako taldeak ziren biderik pribilegiatuena berri ona bizitzeko eta fedea suspertzeko, Ekintza Katolikoko mugimendu orokorren eta berezien barnean. Talde horien fruituak oparoak izan dira eta dira gaur ere, munduko errealitateak bizitzeko era ebanjelikoa garatu eta eustera koan, errealitate horiek fedearen begiez ikusiz, Hitzetik irakurriz eta interpretatuz eta Erreinua bizitzeko eta Erreinuaren testigantza emateko deia sentitu duten ikasleen antzera jokatuz.

Gure gizarte-kultura esparrua aldatu den bezala, Espirituak ere elkarte espiritualtasunerako bide berriak sortu ditu. Laikoen elkarteak, erreferentzi talde edo komunitateak eta Hitzaren irakurketa sinestudunerako taldeak bultzatu dituzten mugimenduak agertzea izan da horietako bat. Horiek guztiek Ebanjelioarekiko leialtasuna sustraitu eta bultzatu nahi dute gure gizartean. Mugimendu, ordena, kongregazio eta institutu erlijioso eta sekularrak sortu dira parroketan. Laiko ekintzaile asko eta asko elkarte horietako kide da.

Elkarte-espiritualtasuna da Jesusen jarraipenaren ezaugarri esentzialetako bat, jarraipen horren sorreratik. Apostoluen Eginak liburuan jasotzen da apostoluen inguruko pasarte eder hau. Pedro eta Joanen atxilotze, epaiketa eta askapenaren ostean kokatzen da:

Libre utzi zituztenean, senideengana itzuli ziren, eta apaizburu eta zaharrek esandako guztia kontatu zieten. Entzutean, denek otoitz egin zioten goraki eta aho batez Jainkoari:

Jauna, zuk egin zenituen zeru-lurrak eta itsasoa, eta horietan bizi diren guztiak; zuk esan zenuen Espiritu Santuaren bidez eta gure aita David zeure zerbitzariaren ahoz:

**«Zergatik dabilta iskanbilan nazioak,
eta asmo ustelak asmatzen herriak?**

**Mundu honetako erregeak altxatu dira,
eta agintedunek elkar hartu dute**

Jaunaren eta berak aukeraturiko Mesiasen aurka.»

Bai, hala elkartu dira hiri honetan Herodes eta Pontzio Pilato atzerriko nazioekin eta Israel herriarekin, zuk Mesias egin zenuen Jesus zure zerbitzari santuaren aurka. Horrela, zure ahalmenak eta gogoak aurrez erabakia zutena bete dute horiek. Begira orain, Jauna, nola mehatxatzen gaituzten; emaguzu zeure zerbitzarioi zure hitza ausardia osoz predikatzea. Eta luzatu eskua, zure

zerbitzari Jesusen bidez sendakuntza, mirari eta egintza harrigarriak gerta daitezzen.

Otoitza bukatzearekin batera, bilduak zeudeneko tokia dardaratu egin zen; denak Espiritu Santuaz beterik gelditu ziren, eta jainkoaren hitza ausardiaz predikatzen zuten.

(Apostoluen Eginak, 4. kapitulua, 23-31 txatalak)

Pasarte honetan ditugu gure bizitzako gertaerarik nabarmenenak konpartitzeko, Hitzaren argira irakurri eta interpretatzeko eta, ebanjelioaren arabera jarduteko, Espiritua onartzeko bide den elkarte txiki baten espiritualtasunaren funtsezko osagaiak. Hau ikusten dugu lehenengo eta behin: gertatutakoa gainerrako apostoluei kontatu beharra sentitzen dutela Pedrok eta Joanek. Aske gelditzeaz batera, senideengana itzultzen direla gertatutako guztia kontatzera diosku pasarteak. “Senideak” hitzak, gizarteko gainerako taldeetatik desberdin sentitzen direla adierazten du; desberdin pentsatzen duen eta gauzak beste era batera ikusten dituen inguruan, Jesusenganako fedea eta haren heriotza eta piztueraren iragarpenak markatutako elkarte dira. Agintari erlijiosoek horregatik atxilotu, galdekatu eta mehatxatu dituzte.

Seguruenez, gutariko inork ez du jasango horrelako egoerarik; hala ere, gure eguneroko bizitzan sarritan aurkezten zaizkigu ebanjelioarekin bateragarri egiteko zailtasunak eragiten dizkiguten egoerak. Batzuetan, bidegabekeria sakanak eta izugarritzko desberdintasunak egoteari lotuta daude; beste batzuetan, zintzo eta leial jokatzeko beldurrarazten gaituzten ondorio praktikoak dakartza; beste batzuk gure bizimoduari lotutako erabakiei dagozkie eta besteek, batez ere behartsuenek bizimodu horretan duten lekuari.

Une horietan, erabakigarria da ikasleen elkarte bateko kide sentitzea, gure ezbaiak konpartitu ahal izateko eta hartu beharreko bidea bereizteko. Gizarte guztiz indibidualistan, geuk ere errezeloak ditugu geure bizimoduak eta erabakiak kontrastatzeko. Jarrera horrek geure baitan ixten gaitu eta dezente ahultzen gaitu, Ebanjelioaren aurrean leial jokatzeko gaitasunean. Espirituak, horregatik, dei egiten digu, ikasleen elkarteko kide senti gaitzen eta bertan gure bizitzak partekatu eta kontrastatu ditzagun.

Pasarte honen bigarren elementuak erakusten digunez, gertatutakoak Hitzaren argira irakurtzen eta interpretatzen dira, auziaren sakonera joz. Bigarren Salmoko pasartearen irakurketak argi egiten die apostoluei, ondorio honetara heltzeko: ez dela, gutxi-asko, desberdinak edo aurkakoak izan daitezkeen jarrenen arteko aurkaketa, beste gauza askoz garrantzitsu bat baizik: botere guztien ituna Jesusen eta haren misioaren aurka eta, ondorioz, haren jarraitzaileen aurka.

Fedeari dagokionez, gero eta axolagabea eta hain “atenastarra” den gurea bezalako gizartean, ez dirudi Ebanjelioaren auziagatik jazarpena jasateko arriskurik dugunik. Gutariko nork sentitzen du? Beharbada, datu hau bera da gure bizitza ebanjelikoaren bakarkako eta eliz ahultasunaren adierazle. Baina, nola irakurtzen eta interpretatzen dugu kristau-bizitzaren garrantzirik eta tonurik eza gure gizartean? Hitzaren argira egiten saiatzen al gara? Egin ote dezakegu bakarrik?

Hirugarren eta azken ezaugarria, apostoluen erabakiari lotua dago: beren bokazioari jarraituko diote kontrako giroan eta Hitza ausardia handiz hots egingez. Horretarako laguntza eskatzen diote Jaunari eta honek Espiritu Santua bidaliz ematen die laguntza hori. Espirituaren etorrerak bilduak zeudeneko tokia dardararazi egin zuela diosku testuak, Espirituaren indarrak edozein egoera sustrai-sustraitik mugi dezakeela adieraziz. Ba ote dugu indarrak apostoluek hartu zuten erabaki bera geure bizitzetan hartzeko? Ez al dugu uste, sakonean, gauzak horrela hartzea, hain kementsu, gehiegizkoa eta kaltegarria dela? Ez al da egia, beraz, geure burua benetako kidetzat hartzeko aukera emango digun elkarte behar dugula, Espirituaren laguntza sentitzeko eta ebanjelioaren arabera jarduteko? Prest al gaude Espirituaren indarrak sustrai-sustraitik mugi gaitzan?

3. Parroki elkarteak

Familia-elkarteak eta erreferentzia elkarteak ez dute gure espiritualtasunaren elkarte alderdia agortzen. Alderdi hori unibertsala da, Elizaren izaera eta misioa unibertsalak diren bezala. Apostoluengan oinarritua sortu zenez, Eliza unibertsala, Pedro eta haren ondorengoak buru direla, gainerako elizbarrutiek komunioan bizi behar duen elizbarruti bakoitzean gauzatzen da. Elizbarruti bakoitzean, parrokiak elkartearen elkarte izateko bokazioa du.

Egia da, *Gure kristau elkarteak berriztatu* 2005ko Garizuma-Pazkoko pastoral idazkian esaten genuenez, parrokiak aldatu egin behar duela eta Pastoral Barruti berrietara jo behar duela; egia da, era berean, gizarte eta kultura arloan izandako aldaketen eraginez, parrokiek dagoeneko ez dutena lehen bezain besteko eragin fedean eta inguruan sozializatzeko; dena dela, parrokia ordezkatu ezin den errealitatea da Jesusen jarraipenean garrantzitsua den elkarte alderdia bizitzeko.

Benetan, San Pauloren idazkien eta Apostoluen Eginak liburuaren bidez ezagutzen ditugun lehenengo kristau-elkarteek gure parrokien bizkarrezurra diren kristau-elkarte guztien funtsezko ezaugarriak aurkezten dituzte. Ikus dezagun hurrengo pasarte honetan:

Denak apostoluen irakaspenak entzuteari eta elkarte-bizitzari emanak bizi zirenen, ogi-zatitzea eta otoitza elkarrekin egiten zituztelarik.

Fededun guztiak elkarturik bizi ziren, eta dena denentzat zeukaten: beren lur eta ondasunak saldurik, guztien artean banatzen zuten dirua, nork zer behar zuen.

(Apostoluen Eginak, 2. kapitulua, 42, 44-45 txatalak)

Pasarte labur honetan laburbiltzen da oso-osorik kristau-elkarte guztien bizitza: irakatsi, ospatu, karitatea gauzatu eta komunioa bizi. Kristau-elkarte guztiek, era batekoak nahiz bestekoak izan, ezaugarri eta eginkizun hauek dituzte; hala ere, horren guztiaren gauzatzeko parrokia-elkartearen du zentzu betea: parrokiaren bizi da familia- eta erreferentzia- elkartearen edo mugimendu apostolikoaren ezaugarritzat jo ditzakegun muga naturalatik edo kidetasun pertsonal, sozial edo bokaziozkoetik haratago zabaltzen gaituen aniztasuna.

Aniztasun honek berariazko esanahi ebanjelikoa izan dezan, komunio bezala bizi behar dugu, horixe delako Espirituak Jaunaren Elizari ematen dion dohainik garrantzitsuenetakoa. Komunioan bakarrik –bi aldiz adierazten du hau testuak– bizi dezakegu Jesusen jarraitzaile izateko bokazioa, geure nahieren, pentsamoldeen, giza jarreraren, ezaugarrien eta joeren berariazko mugetatik garbiturik. Komunio honek bi alderdi banaezin eta osagarri ditu: espirituala eta materiala.

Espiritualak, Kristok Aitari otoitz egiten dioneko pasartean komentatu dugunez, Jainkoarekiko eta besteekiko erabateko batasunaren esperientzia biziarazten digu, desberdintasun eta anbiguotasunen gainetik, dohain eta agintzari bezala. Komunio espiritual honek komunio materialera garamatza, hau da, garen eta dugun guztia besteekin partekatzerara, denok Jainkoarengandik jaso dugulako den-dena. Baina gure ondasun materialak bakoitzak behar duenaren arabera besteen artean erdibanatzeaz gain, geure karisma eta bokazioak ere partekatu behar ditugu elkarte osoarekin, Kristo buru duen gorputz bakarra eraikitzeko, San Paulok gogoratzen digunez. Parrokia-elkartean, beraz, karitate osoa goa gauzatu behar dugu.

Parroki elkarteak, lehenengo kristau elkarteak bezala, iraunkor izan behar du *“apostoluen irakaspenetan”*. Horregatik, apostoluen ondorengo den elizbarrutiko gotzainaren gidaritzapean, hortxe irakasten eta iragartzen da ospatzen eta praktikatzen den salbamenezko misterioa: Aita sortzailearen betiereko maitasuna bere Seme Jesu Kristo salbatzailearengan eman zaigula ezagutzera oso osorik eta gudan bizi dela Espiritu bizi-emailearen isurpenez.

“Ogi-zatitzea” esaeraz, fededun elkartearen bizitzaren bihotza den Eukaristiaren ospakizuna adierazten du testuak. Horregatik, Eukaristiak eta hori igandero ospatzeak duen garrantzi handia nabarmendu nahi dugu beste behin ere. Eukaristiarik gabe ezin gara kristau-fedeaz mintzatu. Eukaristia-ospakizun honek parrokiaren du esparru egoki eta ezinbestekoa elizbarrutiko komunioaren barnean. Parrokiaren uztartzen da karisma eta bokazioen aniztasuna eta elkarteko kide izatea, Eukaristiak horretantxe aurkitzen du-eta benetako izaera.

Ospa daiteke Eukaristia elkarte murriztuagoetan, hori gomendatzen duten pastoral arrazoiak daudenean. Pastoralgintzari dagokionez, komenigarria izan daiteke, baita ere, talde jakin batzuei, esate baterako gazteei, familiei edo beste batzuei, zuzendutako eukaristiak ospatzea. Ezin dugu ahaztu familia erlijioso desberdinen kultu-etxeek eskaintzen duten zerbitzu handia. Baina horrek ez digu ahaztarazi behar parrokiako eukaristia-ospakizunaren garrantzia.

Orokorrean, parrokiak da esparru arrunt eta egokia sakramentu-bizitzarako. Parrokia- elkarteak bermatzen du graziaren indibidualismoaren tentazioa gainditzea, Espirituaren isurpena parrokiaren irudikatutako elkarte osoan gertatzen delako. Parrokia-elkarteak egiten digu harrera Elizaren Bataioaren bidez eta gure fedea sendotzen laguntzen digu. Berak agurtzen gaitu, era berean, piztueraren itxaropenez, mundu honetatik joan beharra dugunean.

Horregatik, parroki-elkartea, testukoa bezala, elkarte otoizlaria ere bada, aldi berean anitza eta bakarra den elkarte bezala Jainkoarekin harremana du, honen maitasun mugagabe eta egundokoaren misterioaren esperientziak alda-

tuta, bere poz eta tristurak, argi eta iluntasunak, sendotasun eta makaltasunak, itxaropen eta porrotak adierazteko, beti ere garbitze- eta bereizketa-bidean, Jesusi elkarte bezala jarraitzeko.

VI. BOKAZIOA JAINKOAREKIKO HARREMAN ZUZENEAN BIZI

Gutariko inork ezin du saihestu, azken batean, gure arimaren bakardadean Jainkoarekin bat egitea. Hau ez da bokazio jakin batzuei bakarrik dagokien esperientzia, Berri Ona jaso dugun eta bizi eta hots egin nahi dugun guztioi dagokigun esperientzia baizik. Bat-egite zuzen hau gabe ezin da espiritualtasuna benetan bizi, ez eguneroko bizitzan ez elkartearen ere. Hiru alderdietako batean ere ezin dugu huts egin, berri ona benetan bizi eta hots egin nahi badugu; dena dela, ez da erraza Jainkoarekin zuzenean bat egitea gure barru-barruko izatearen baimortuan. Beharbada, ez gaude ondo hornituta horretarako.

Jainkoarekin harreman zuzena izateko, gure espiritua landu eta bigundu egin behar dugu, ariketa espiritualaren bidez. Jainkoarekiko harreman hau bereziki beharrezkoa da gure bokazioa aurrera eramateko bereizketa eta prestaketa aldietan, batez ere gure fedearen eta bizitzaren zentzua zalantzan jartzera garamatzaten une bereziki zailetan. Jainkoaren aurrean, otoitzaren bidez, osotasunez adierazteko bidea ere aurkitu behar dugu.

1. Espiritua landu eta bigundu: ariketa espiritual

Gorago aipatu denez, gure bizitza geure burua baino handiagoa denaren eta beraz, misterio baten aurrean etengabe bizitzearen esperientzia da, nolabait, giza esperientziarik oinarrizkoena eta ohikoena. Gure izate osoa zeharkatzen duen oinarrizko esperientzia mistiko hau guztiz ezezaguna da. Gero eta sentsibilizatuago gaude eta argi dugu osasuna zaindu egin behar dugula ariketa fisikoa maiz eginez, baina, ostera, ez dugu aintzat hartzen genahiz ure spirituaren osasuna eta hori lortzeko ariketarik egitea, eta hori ezinbestekoa dugun gizatasunez bizi ahal izateko.

Aurrerago aipatu dugun *Gure kristau elkarteak berriztatu 2005*ko Gari-zuma-Pazkoko pastoral idazkian behin baino gehiagotan esaten denez, murriztapen honek gure pastoral estilo eta praktikan ere eragina du. Orduan genioenez, gure kristau elkarteak ezin dira berriztatu, Jainkoaren maitasunaren misterioaren esperientziaren bidez ez bada. Gure Elizan Espirituaren presentzia sakontasunez bizi duten elkarteak badaude ere, kultura lehortze itzela dago spirituaren gaietan eta horrek ere badu eraginik guregan eta elkartearen.

Aurrez aurre dugun erronkarik nagusienetakoa da, gure Elizan eta gizartearen bertan antzeman daitekeen egarri espiritual sakonari erantzun egokia ematea. Asko eta asko ari da esparru honetan bide berriak zabaltzea nahian, garaiekin zantzu bat seinalatuz. Ez al da harrizketa Mendebalde osoan beste erlijio edo tradizio espiritual batzuen, batez ere ekialdekoen, ariketa espiritual aurkitzea eta praktikatzeko, gure kristau tradizioak arlo honetan duen egundoko aberastu-

sunaz jabetzen ez garen bitartean? Ez ote da hau bokazio ebanjeliko ororen sus-trai espirituala sakontasunez bizitzeko bideak jartzeko deia?

Biblian iturri agortezina da jakinduriazko literatura, geure barru-barruan murgiltzeko eta benetako jakinduria bilatzeko, itxurazkoa edota azalekoa ez, baizik geure espiritutik, Jainkoaren Espirituaren beraren dohainetik sortzen den jakinduria bilatzeko. Testu eder honek laguntzen digu bide espiritualaren giltzak aurkitzen:

*Oraindik gazte nintzelarik, bidaiatzen hasi aurretik,
bete-betean bilatu nuen jakinduria neure otoitzean.
Tenplu aurrean otoitz egin nuen hori lortzeko,
eta neure bizitzaren azkeneraino bilatuko dut.
Loratu zenean, hartaz poztu zen nire bihotza,
heltzen ari den mahats-mordoaz bezala.*

*Bide zuzenetik ibili dira nire oinak,
jakinduriaren arrastoari gaztarotik jarraituz.
Ahaleginik txikiena aski izan dut neureganatzeko
eta zer ikasi asko aurkitu izan dut neuretzat.
Berari esker egin dut nik aurrera;
horregatik, jakinduria ematen didanari aintza emango diot.*

*Nire barrua sugartsu lehiatu zen haren bila;
horregatik egin dut lorpen bikaina.
Jaunak mihia eman dit saritzat
eta goretsi egingo dut beronekin.
(Ben Siraken Jakinduria, 51. kapitulua 13-17, 21-22 txatalak)*

Jakinduria, Jainkoaren betiko berezitasuna da jakinduriazko literaturan. Kristau tradizioak Jainkoaren betiko hitza, Aitaren betiko *logos*-aren irudia, ikusi du jakindurian. San Paulok, bere aldetik, *Jainkoaren jakinduria* deitzen dio Kristori. Jakinduria iristea, beraz, Jainkoarekin sintonia bikainean egotea da, eta bere aginduen arabera jardutea. Kristau hitzez esanda, zein da jakintsua? Jarraitu beharreko bidea, Jesus, ezagutu duena eta leialtasunez, etsi gabe, jarraitzen diona.

Nola lortzen da jakinduria espiritual hau? Testuak ematen dizkigu gako batzuk. Lehenengo, bilaketa hori gaztaroan hasten dela, *bidaiatzen hasi aurretik*. Horrekin hau esan nahi da: ez dela munduko jakindurian, bizitzan lortzen den ohiko jakindurian, bilatu behar. Otoitzean eta zintzotasunen bilatzen dela argitzen digu testuak. Horixe da ariketa espiritualaren hasiera. Sustatzen al dugu honelako bilaketa goiztiarrik, zintzorik, otoitzean, geure seme-alabengan eta gazteengan? Jabetzen ote gara ariketa espiritual goiztiar honen garrantziaz? Ez al da egia garrantzi handiagoa ematen diogula jakintzak jadesteari eta “*munduan barrena bidaiatzeari*”, bizitzari segurtasunez eta arrakastaz aurre egiteko?

Bigarren, bilaketa hau tenpluarekin, Jainkoaren bizilekuarekin lotzen dela; eskari bezala deskribatzen da eta “*azkeneraino*”, hau da lortu arte, iraunkortasunez bilatzen dela esaten da. Nola azaldu hobeto, benetako jakinduria duen

Bakarrak eskatzen duen otoitza iraunkortasunez eta etengabe eginez bilatzen dela? Guregan loratzen ikusten dugunean, gure bihotza poztu egiten da.

Jakinduria, hala ere, gorde eta landu egin behar dugu, testuak azaltzen dizkigun beste bi ariketaren bidez. Lehenengoa, haren jarraibideak betetzea da, bide zuzena hartuz. Jakinduriaren dohainak dakarkigun bihotzeko poztasunari eutsiko badiogu, leial iraun beharra dugu geure ikasle-bidean. Bigarrena osagarria da. Bide zuzen honetan zehar, adi egon behar dugu, beti entzuteko prest, gure belarria jakinduriara zuzenduz, jadets dezagun.

Bi ariketa osagarri hauen bidez jabetzen gara zuzen jokatzearen funts eta arrazoi sakonaz, zentzuz beteriko agindu bezala ulertzeko. Testuak irakaspen handi bezala aurkezten digu ulermen hau, eta baita barruko asaldatze bezala ere: gure ulermena aldatzen da, bai, baina baita gure izate osoa ere, sakon-sakoneraino. Horregatik aldatutako barru horretatik sortzen zaizkigu jakinduria ematen digun Jaunarenganako aintza eta gorespina.

2. Basamortuko esperientzia

Bakardade eta basamortuaren esperientziaz dihardugunean, burura dator-kigun lehenengo gauza, zailtasunari, lehortasunari, desatseginari lotua dago. Alde batetik, Jesusek ebanjelioan erakusten digunez, basamortua beharrezkoa da, gure bokazioa Jainkoaren borondatearekiko leialtasunean eratzeko. Badago, hala ere, beste basamortu-mota bat, Jainkoaren basamortua, oinaze eta zoritxarreko garaietan Jainkoa ezkutatzek eragiten duen basamortua. Jesusek ere esperimentatzen du basamortu hau, gurutziltzaketa eta heriotza hurbil dituenan, Getsemaniko baratzekeko otoitzean ikusi dugunez. Bi basamortu-mota hauetatik gida gaitzan, Espirituaren eskuetan jartzea hil ala bizikoa da, Jesusen Jainkoaren ñabardura guztiak ezagutzeko, geuk ere haren borondatea bete nahi dugulako Jesusi jarraitzean.

a. Basamortua, prestaketa eta garbikuntza bezala

Espiritua eratzerakoan, tradizio erlijioso eta espiritual guztietan agertzen den elementu garrantzitsu bat dago: adimenaren, bihotzaren eta borondatearen iraunkortasun eta leialtasuna lantzea, Espirituaren arabera ulertzeko, Espirituarekin sentitzeko eta Espirituaren gidaritzapean jarduteko. Itun Zaharrak zuzen esaten dio Jaunaren bideetan leialtasunez irauten duenari. Jesusek santutasun edo bikaintasun esaten dio leialtasun horri. Kristau tradizioan, bertute ere esaten zaio.

Ebanjelioak Jesus aurkezten digu bere espiritua basamortuan prestatzen, Aitak uneoro adieraziko dion eta, azkenean, gurutzera eramango duen borondateari leial erantzuteko. Geure buruari ezar diezaiokegu pasarte hau:

Orduan, Espirituak basamortura eramanez Jesus, deabruak tenta zezan. Berrogei gau eta berrogei egunez egon zen han, barau eginez, eta azkenik gogotu egin zen.

Hurbildu zitzaion, orduan, tentatzailea eta esan zion:

– Jainkoaren Semea zarenez, agindu harri hauek ogi bihurtzeko.

Jesusek erantzun zion:

– *Liburu Santuetan idatzita dago: «Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi, baizik Jainkoak esaten duenetik bizi da.»*

Ondoren, deabruak hiri santura, Jerusalemara, eraman zuen eta, tenpluaren goreneko ertzera jasorik, esan zion:

– *Jainkoaren Semea zarenez, bota zeure burua behera, idatzita baitago: «Bere aingeruei aginduko die zu zaintzeko. Eta besoetan eramango zaituzte, harriekin estropezu egin ez dezazun.»*

Baina Jesusek erantzun:

– *Hau ere idatzita dago: «Ez tentatu Jauna, zure Jainkoa.»*

Berriro deabruak hartu eta mendi garai batera eraman zuen; munduko erreinu guztiak beren handi-ederrean erakutsi eta esan zion:

– *Hori guztia emango dizut, ahuspezturik gurtzen banauzu.*

Jesusek orduan:

– *Alde hemendik, Satanas! Idatzia baitago: «Adoratu Jauna, zure Jainkoa, eta bera bakarrik gurtu.»*

Orduan, deabruak utzi egin zuen, eta aingeruak etorri zitzaizkion zerbitzatzera.

(San Mateoren ebanjelioa, 4. kapitulua, 1-11 txatalak)

Israel herria agindutako lurraldean sartzeko prestatzea eta garbitzea eta Jesus bizitza publikorako eta Jerusalemara igo eta gurutziltzatu aurretik jasan behar zituen probetarako prestatzea eta garbitzea lotzen ditu Ebanjelioko pasarte honek. Israel herria, Jainkoak Egiptoko esklabotzatik aterata, berrogei urtez basamortuan zehar erromes ibilaraziz prestatu zen bezala, Jesusek ere berrogei egun eta berrogei gau igaro zituen basamortuan bere burua prestatzeko. Herriak basamortuan etengabeko tentazioak eta probak jasan zituen bezala, Jesusek ere jasan behar izan zituen. Egokiera batean baino gehiagotan herriak Jainkoarekin leial jokatu ez zuen bitartean, Jesus garaile ateratzen da probatik, Jainkoari leialtasun hautsezina erakusten diolako, itun berriko Israel berria, gaitz eta gaizkilearen garailea, itxuratu zuelarik.

Basamortua ‘gauza guztiez gabetzearen’ metafora da, espiritua lantzeko ezinbestekoa den biluztea bizitzearen metafora, geure buruarekin bat egiteko beharrezko baldintzak sortuz, geure izatearen sakonera jaitsiz, nor garen aitortuz eta, batez ere, guregan bizi den eta bizia ematen digun Espirituaz jabetuz eta Berarengana irekiz.

Jesus ez doa bere kabuz basamortura, Espirituak darama hara. Jesus oso-oso haren eskuetan jartzen da eta haren gidaritza onartzen du uneoro, Aitarekin azkeneraino leial jokatuz. Kasu honetan “*deabruak tenta dezan*” darama basamortura Espirituak, Jesusen leialtasuna eratzeko, tentazioaren proban. Jesusen ‘gabetzea’ eta probarako prestakuntza hori barau luzearen bidez nabarmentzen da, eta “*azkenik gosetu egin zen*”. Honela ikus dezakegu testuan, Jesus gure antzeko dela giza makaltasunean, tentatzaileak aurkitzen duelako zirrikituraren bat hari erasotzeko.

Jesusek jasaten dituen hiru tentazioak, gizakiak antzinatik jasan izan dituen eta gaur egun geuk ere gure bizitzetan jasaten ditugun hiru tentaziorik ohikoena eta sakonenak dira. Lehenengoa egunero sentitzen dugu, geure egarri eta gosea eskura ditzakegun ondasunen oparotasunaz ase nahian. Begira diezaio-

gun geure bizitzari argi eta zintzo, guk geuk sortu dugun kulturak eta gizarteak, gosea asetzeko gero eta ondasun eta zerbitzu gehiago kontsumituz, tentatzaileen proposamenaren onarpen estrukturalan bizitzera bultzatzen gaituztela aitortzeko. Erantzuna ez dago hor, hala ere, jakinduriaren bilaketari dagokionez ikusi genuenez eta Jesusek pasarte honetan dioskunez, Jainkoaren hitza entzutean baizik, eta haren bideetan sendo irautean. Horixe da bizi-iturria. Bilatzen ote dugu apaltasun eta bakuntasunaren basamortua, gure belarriak adi egon daitezen Hitz askatzaile hori entzuteko?

Jainkoa, hala ere, benetako biziaren iturri bezala ez ezik, Jainko bakar bezala ere agertzen zaigu, ordezka eta manipula ezin dezakegun Jainko bezala. Horixe erakusten digu bigarren tentazioak. Zenbat aldiz tentatu ohi dugu Jainkoa, gure bizimodu zentzugabearen jokoa onar dezan? Zenbat aldiz nahi genuke Jainkoak horrela jokatea, kolpeen eta bidegabekeriaren ‘biluztearen’ zauri hilgarriez jota, munduko bide bazterretan botata daudenez ezer –edo ez gehiegi– jakin nahi ez dugunean? Ez al dugu horrela jokatzeko, ez hotz ez bero garenean, arazorik ez izateko, aldi berean ebanjelioa bizi nahirik, baina bere erradikalatasuna geure egin gabe? Ez ote dugu geure burua gure gizarteak markatzen dituen patroien amildegitik behera botatzen, “Jauna!, Jauna!” esaten dugun bitartean? Durundi egin dezala gure barruan Jesusek esaten digunak: *“Ez tentatu Jauna, zeure Jainkoa!”*.

Azkenik, gure espiritua landu egin behar dugu, hirugarren tentazioa, erabakigarriena, gainditzeko: geure arima deabruari saltzera garamatzen botere eta aintzaren idoloak gurtzeko tentaldia. Hasteko, aitor dezagun hizkera bera ere harrigarri eta larregizkotzat dugula. Deabrua? Tentatzailea? Gure arima saldu? Hitz hauek ez datoz bat bizi dugun kultura ilustratuarekin. Mitologikoegitza dugu hori guztia eta, horretaz gain, gainditu beharreko superstizioez ukitua dagoela uste dugu. Baina, ez al da egia botere eta aintzak, ospe eta arrakasta profesional eta ekonomiko erara, ikaragarri erakartzen gaituztela? Ziur al gaude Jainko bakarrenganako fedearen neurtzaileak darabiltzagula, nagusi den kulturaren neurritzaileetara moldatu gabe? Gaitza eta bekatua ezjakintasunaren fruitu direla eta hezkuntza eta herri balioen armekin bazter ditzakegula pentsatzeko bezain inozoak ote gara? Horrek ez ote du esan nahi geure idoloak sortu ditugula?

Jesusek dei egiten digu biluztasunaren basamortuan, geure gezur eta amarruak azaleratzen diren lekuan jarrai diezaiozun. Inoiz baino beharrezkoagoa dugu, gure espiritua garbitzeko eta lantzeko, gure bizitzetan ebanjelioarekiko leialtasunari eusteko eta San Paulok aipatzen digun helburua iristeko. Basamortuan Jesus zerbitzatzeko agertzen diren aingeruek hau adierazten dute: Jainkoaren presentzian bizitzen jarraitzen duen Jesusen leialtasunak tentatzailea garaitu duela.

b. Proba erradikalaren basamortua

Basamortuaren bigarren esperientzia –gainditzeko lehenengoa behar da, baina ez da nahikoa–, zuzenaren sufrimendu larrian agertzen da batez ere. Jesus da basamortu-mota honen eredia, Aitarene borondatea, bere sentimendu eta nahieren gainetik, gurutzeraino onartzean. Itun Zaharrak mugako esperientzia espiritual honen hainbat adibide eskaintzen digu Salmoen liburuan, Negar Kan-

tak liburuan eta, bereziki, Joben liburuan. Ikus dezagun azken liburu honetako pasarte bat:

*Orain, biziak ihes egiten dit,
estu eta larri bizi naiz atsekabez.
Gauetz, hezurretaraino zulatuta saminez,
etengabeko oinazeak izaten ditut.
Nire larruazala erabat desitxuratua dago,
gaitzez estalia tunikaz bezala.
Lokatzetan murgilduta nago,
hona hemen ni hauts eta errauts bihurtua.*

*Nik deiadar egin eta zuk, Jainko, ez didazu erantzuten,
aurrean jarri eta begirada zorrotza botatzen didazu.
Nire borrero bihurtu zara,
gogor erasotzen didazu ukabilka.
Airean eramaten nauzu,
haizeaz eta ikaraz astintzen.
Badakit heriotzara naramazuna,
bizidun guztien elkartokira.*

*Ez al du pertsonak eskua luzatzen hondatzeaz dagoenean,
eta laguntza eske garrasi egiten?
Ez al dut, bada, negar egin zoritxarrekoarekin
eta erruki izan behartsuari?
Zorionaren zain, eta zoritxarra etorri zait;
argia itxaroten, eta iluntasuna iritsi.
Irakiten dut barrua,
atsekabe-egunak heldu zaizkit.
(Job, 30. kapitulua, 16-27 txatalak)*

Erabateko zoritxarrean izandako aurrerapen espiritualaren eredia da Joben esperientzia. Esperientzia horren argira, bizitzak erabateko zoritxarrera bultzatzen gaituenean dakigu benetan nor garen esan dezakegu. Egoera horretan sumatzen dugu fedea zer esan nahi duen guretzat eta zein Jainkoarengan fidatu garen.

Asko laburtuz, hauxe diosku Joben liburuak: Oso erraza dela Jainkoarengan sinestea eta Berataz fidatzea, bizitza ongi doakigunean eta ezer falta ez zaigunean. Beste hau ere badiosku: Jainkoarekiko gure harremana ez dela trukearen antzekoa non, gu onak izatearen truke, Jainkoak bizitzan gauzak ondo joatea ematen digun eta alderantziz. Azkenik, Jainkoaren doakotasun eta handitasuna gure zuzentasun eta gauzak neurtzeko eraren gainera daudela erakusten digu. Ondorioz, gure bizitzan hori aurkitu arte, ezin dugu esan Jainkoa benetan ezagutzen dugunik.

Dena, baita osasuna ere, galtzean eta bere burua bizitzako simaurtegi botata ikustean, Job bere egoeraren arrazoiak bila hasten da. Emazteak Jainkoa ukatzeko esaten dio, Jainkoak Jobi huts egin diola uste duelako. Jobek sendo dirau bere fedean, nahiz eta etengabe erakutsi Jainkoari bere egundoko mina eta Hark abandonatu, kolpatu, jazarri eta heriotzara eramanez dueneko sentipena.

Jobentzat, Jainkoak berak bidegabe gaizki tratatzea da benetan ikaragarria. Ondorioz, krudelkeriaz tratatzen duela diotso Jainkoari eta berarekin grinatu dela.

Ohar gaitzen, dena dela, Jobek etengabe egiten diola otoitz Jainkoari. Liburuak jasotzen dituen arrazoiketa teologiko sakonen gainetik, Joben eta Teologia orotatik haratago doan benetako jakinduria iturri den Jainkoaren arteko erlazioa da benetan funtsezkoa. Erlazio horretan, Jobek etengabe egiten du otoitz, askatasun beteaz hitz eginez eta kexatuz, otoitzean Jainkoaren aurreko hitz zorrotzak eta kexuak ere kabitzen direla erakutsiz.

Jainkoak nahi duen bezala, zuzentasuna eta errukia gauzatuz, beti bide zuzenetik ibili dela Jobek uste izatea da puntu erabakigarria. Bere errugabetasuna aitortzean, bide okerretik zertan aldendu den esateko eskatzen dio Jobek Jaunari edo, bestela, adieraz diezaiola zergatik jokatzen duen horrenbesteko krudelkeriaz berarekin, guztiz ulergaitz eta bidegabetzat duelako Jainkoaren jokaera hori. Joben sufrimendurik gogorrena Jainkoa ezkutatzea eta isiltzea da. Horregatik, penatua hots egiten dio Jainkoari, erantzuna eskatuz:

*Ai, entzungo lidakeen norbait banu!
Hona nire azken hitza!
Erantzun diezadala Ahaltzuak.
(Job, 31. kapitulua, 35. txatala)*

Ahaltzuak –Jobek Jainkoa izendatzeko darabilen hitza– azkenean hitz egiten du Jobi esateko, ez zuzentasunari huts egin diola eta zigorra merezi duela esateko, baizik bere handitasun, zuzentasun eta doakotasunetik desberdina den beste maila baten dagoela ulertarazteko. Jaunaren erantzunaren ostean, Jobek bere txikitasuna onartzen du eta haren borondatea onartzen du:

*Badakit dena dezakezula zuk,
ez dagoela ezinezko egitamurik zuretzat.
Bai, jakin gabe hitz egiten dut
ulertu ezin ditudan misterioei buruz.
Entzutez bakarrik ezagutzen zintudan;
orain neure begiz ikusi zaitut!
Beraz, damutzen naiz esandakoaz,
hauts eta errautsetan eseria.
(Job, 42. kapitulua, 2-3, 5-6 txatalak)*

Joben aitortpena da azken pasarte honen muina: erabat mingarria izan den proba honen bitartez, Jainkoarekiko bere harreman zintzo eta otoizlariak, erabateko intimitatean eta zabal-zabalik, Jainkoaz zuen ezaguera osatu gabea gainditu eta ezaguera sakonera eraman duela: “*Entzutez bakarrik ezagutzen zintudan; orain neure begiz ikusi zaitut!*”.

Ez al da egia gure kultura sendoko idolo guztiak erori egiten zaizkigula gaitoxotasunak bere alderdirik gogorrena dakarkigunean edota heriotzak senide kuttunen bat daramakigunean? Horrelakoetan, ez ote zaigu errazago egiten besteen samina, batez ere makalenena, geure egitea? Joben antzera, zuzen jokatzeak haien ondoan egotea eta proban haiei leialtasuna erakustea eskatzen du. Geure probarako prestatzeko modua ere bada eta, horrela, gu erabat gainditzen gaituz-

ten doako maitasuna eta handitasuna dituen Jainkoaren benetako ezagutzan aurrera egiteko aukera. Etsipenez jantzitako une horretan otoitz egin daitekeela eta otoitz egin behar dela erakusten digu Jobek. Jar dezagun arreta Jainkoarekiko barru-barruko erlazio horretarako bide ordezkazekin horretan.

3. Otoitza bizi iturri bezala

Jainkoarekiko harreman pertsonalaren adierazpenik gorena otoitzean dago. Otoitzik gabe, bat-egitea inoiz ez da osoa eta gure espirituari, Jainkoa ezagutzeko baliabideak faltako zaizkio. Otoitzean baino ezin da ezagutze hori gertatu. *Kristauaren otoitza gaur egun* 1999ko Garizuma-Pazkoko Artzain Idazkian aztertu genituen otoitzaren inguruko alderdi desberdinak. Aurtengo Idazki honetan, berriz aztertu nahi ditugu horietako batzuk.

Ezin esan otoitz egiteko giro onik dugunik, nahiz eta inoiz baino beharrezkoagoa den. Beharbada, gure kultura tekno-zientifikoaren lehortasun eta hoztasunaren eraginez gero eta nabariago agertzen da jende askoren egarri espiritual sakona. Honekin batera, hau antzeman dezakegu pozez eta itxaropenez: Espirituaren eraginez gero eta lagun eta talde gehiagok berraurkitu duela otoitza zentzu-iturri bezala eta iturri espiritual aberats bezala. Espirituaren dohain hau lagungarri dugu, Eliza bezala, Berarekiko bategitea sortutako Jainkoaren esperientziaren garrantzia berrizta dezagun.

Jainkoaren etengabeko presentzian bizi dena, nolabait, etengabe ari da otoitz egiten; hala ere, guztiz beharrezkoa den presentzia isil hori zehaztu egin behar da, gure espiritualtasunaren iturri bizi bihur dadin. Basamortuko isiltasunean landu eta eratutako espiritua prest dago otoitzean Jainkoarekin barru-barruko harremana izateko. Hau, berez, ariketa espiritualaren eta basamortu esperientziaren zatia da, aurreko testuetan ikusi dugunez.

Jainkoarekiko barru-barruko harremana hainbat otoitz-erregistrotan adieraz daiteke. Liturgi otoitzean behin eta berriro azaltzen den Salmoen liburuak horren adibide bizi ugari eskaintzen digu. Salmoetan azaltzen da gure gogobihotzak nola dauden, Jainkoari egoera horren berri emateko egiten ditugun otoitzen bidez: gure poztasun eta ahaleginak, gure frustrazio eta nahigabeak, gure muga eta bekatuak, gure bihozberritze-nahia, gure esker onik sakonena jasotako guztiagatik eta konfiantzazko eskaria beharrean gaudenean. Horrek guztiak, sakonean, Jainkoarekin izandako bategitea eta Beraganako konfiantza betea esperimenez eta hots egitera garamatza. 23. salmoak horretarako dei egiten digu:

*Jauna dut artzain; ez zait ezer falta.
Larre guritan etzanarazten nau.
Ur baretara eramaten,
eta indarrak berritzen;
bide egokitik narama,
leiala delako.*

*Ibar beltz-ilunetan banabil ere,
ez dut inolako gaitzen beldurrik,*

*zu nirekin baitzaude:
zure artzain-makilak lasaitzen nau.*

*Zuk atontzen didazu mahaia
etsaien begien aurrean,
ukenduz gantzutzen didazu burua;
gainezka dut kopa.*

*Bai, zoriona keta leialtasunak
inguratuko naute bizitzako egun guztietan;
Jaunaren etxean biziko naiz
amaigabeko egunetan.*

Jainkoa ezagutu duen bihotzaren alaitasun eta baketik sortutako aitorten eder hau Elizaren liturgi otoitzaren zati ordezkazina da. Inoiz ez da behar adina errepikatuko eta beti sortuko du guregan otoitz hori geure egiteko gogo bizia. Era batera bakarrik idatz daiteke eta horrela egin du salmogileak: Jainkoa eta haren neurrigabeko grazia eta maitasunaren janaria baldin baditugu, ezer falta ez zaiguneko esperientzia bizitik; jakinduria bilatuz, Jesusengan haragi egin-dako Hitza entzunez eta Jesusi leial jarraituz, Espirituaren aldaketa onartzen dugun neurrian sendotzen den esperientzia.

Badaki salmogileak bizitzako bidean indarberritu egin behar dugula, baina orobat daki soro eta iturri guztiak ez direla berdinak. Batzuek ez gaituzte asetzen eta, gainera, gure bizitza ihartu egiten dute eta apatiko, axolagabe, egoista, kontentagaitz eta urduri bihurtzen gaituzte. Jaunaren belartzek, ostera, gaztetu egiten gaituzte beren berdetasunaz eta hango iturriek baretu egiten gaituzte beren lasaitasunaz. Belartza eta iturri horiek Jainkoaren Hitz bizia dira, haren grazia maitekorra eta emankorra eta haren bide zuzenak. Jesusek, Jainkoarekin erabateko batasuna duela sentitzean, belartza eta iturri horiek irudikatzen ditu, “*Neu naiz bidea, egia eta bizia*” dionean.

Bizitzan une zail eta ilunak izaten ditugu, basamortu erradikala bera ere bizi dugu. Jainkoaren etengabeko bilaketan eta bere ezkutatzeko mingarriaren proban gure espiritua eraturik, Jobek bezaza, “*Entzutez bakarrik ezagutzen zintudan; orain neure begiz ikusi zaitut!*” oihukatzeke gai garenean hartzen du zentzu betea eta jabetzen gara salmoak dioskunaren egia sakonaz: Jainkoa beti dagoela gurekin eta bere artzain-makilak zabaltzen digula bidea eta euskarri sendo bihurtzen zaigula.

Horrela, paradoxikoa bada ere, Jobi –eta batez ere Jesusi– begiratuz ikusten dugu bizitzako iluntasunean eta bere zentzuaren ezkutatzean argitzen dela Jainkoaren graziaren argia eta hor adierazten direla bere betiko aintza eta egia. “Iluntasun argitsu” honetara iritsita, bizitza maitasun infinituaren fruitu den dohain paregabea dela ikusten dugu. Salmogileak esperientziaz daki hori, eta olerki eta sinbolo bidez adierazten du: bizitza osoa graziako otordua da. Jainkoak prestatzen du mahai bizi hori eta etsaiek ezin dute ezer egin horren aurka; Berak igurzten gaitu bere hautaketaren lurrinaz bizira dei eginez; berak betetzen digu, gainezka egin arte, fede, itxaropen eta karitatearen kopa.

Azken bertsoan zehazten da hori guztia. Hortxe aitortzen da Jainkoa, berez, ontasuna eta maitasuna dela guretzat, gure bizitzen azkeneraino eta beti lagun egiten digun bere kreaturontzat. Horregatik, beti Jainkoarengan biziko gareneko itxaropena hots eginez bukatzen da. Jainkoarekin bat egitetik sortutako fede eta konfiantzazko aitorten eder hau ederregia ote da guretzat? Beharbada, badugu hori sentitzeko arrazoirik. Beharbada, geure erara bizi nahi dugun ebanjelioa bilatzen ari gara; edo, beharbada, geure justizia idealen arabera uler-tzen dugu. Hala ere, horrelako ezerk ez gaitu aseko. Ebanjelioa osotasunez bizit-zeko, gu bere eskuetan betiko hartu gaituen eta bizira dei egin digun Jainkoaren ontasuna eta maitasuna bizi behar dugu.

Azken batean, Jainkoa gure barru-barruan, isiltasun eta otoitzean gertatzen den Berarekiko intimitatean aitortzeak, geure burua gainditu, eta Jainko bakarra aurkitzera eta bere betiereko aintza goastera eta aldarrikatzerara garamatza. Egin dagigun hori 150. salmoarekin:

Aleluia!

*Goretsazue Jainko abere santutegian,
goretsi bere zerusabai tinkoan.
Goretsazue bere egite ahaltzuengatik,
goretsi bere neurrigabeko handitasunagatik.*

*Goretsazue adarsoinuz,
goretsi harpa eta kitaraz.
Goretsazue danbolin eta dantzaz,
Goretsi harisoinuz eta xirulaz.
Goretsazue txilin ozenez,
goretsi txilin durundariz.*

Gorets beza Jauna arnasadun orok!

Aleluia!

Lehenengo bertsoak Jainkoaren eta haren maitasun sortzaile eta emailearen handitasuna goratzen du santutegiaren eta zerusabaiaren irudien bidez, eta haren egite ahaltzuak aipatuz. Bigarrenak musika-tresna desberdinak darabil-tza, gorespina adierazi ere ezin daitekeela egin eta guztiz inguratzen gaituela esateko. Horregatik salmogileak sentimendu hori adierazi nahi du, eta arnasadun orori dei egiten dio Jainkoaren aldeko gorespen kantuarekin bat egin de-zan.

Aleluia!, Jainkoaren aintzaren esperientziaren adierazpen eutsiezin honekin hasten da eta bukatzen gorespina. Jesusen eta Aitaren arteko erlazioaren bihotz-bihotzeko esperientzia honek, San Joanen ebanjelioan kontatzen zaigunez, bildu egiten gaitu ebanjelioa Espirituak gidatutako ikasle bezala bizitzearen ibilbide espiritualean. Aintza hori irrikatzen dute gure begiek, mistikoak astindu eta inspiratu dituen Jainkoarekiko buruz buruko horretan. Ez da Jainkoarekiko **gure** bat-egitea; muina, Jainkoa bera eta begietsi nahi dugun haren aintza da.

VII. BUKAERA: BIKAINTRASUNAREN BIZITZA HEROIKO AUKERA ETA BEHAR BEZALA GAUR EGUN

Gutariko bakoitzak altxor bat jaso du: gure bizitzen bihotza den Jainkoaren maitasuna. Zuzenean ezagutzen dugu, baina ez dugu begien bistakoa, gure barruan bizi delako. Jesusen ebanjelioan agertu zaigu osotasunean, Semearengan, San Joanek dioskunez, *“Aitareen betiko aintza ezagutu dugulako”*. Kristau elkarteak eta gutariko bakoitzak aldean daramagu altxor hori, San Pauloren gutunean irakurtzen dugunez, *“buztinezko ontzietan”*, berak dioenez, *“indar hain itzela Jainkoarena dela eta ez gurea ager dadin”*.

Hauxe da berri ona. Berri on bezala bizitzeak, bakarka eta elkartean, bikaintasuna jadesi arte, gure haragiaren haragi eta odolaren odol egin dadin, gure bizitzak argitu eta aldatuko ditu. Eta Espirituaren indarraz, gure gizartea eta gure mundua argitu eta suspertuko du, errazago eta argiago eginez Erreinuaren presentzia gure artean. Nork jar dezake zalantzan horren ontasun, behar, eta baita premia ere?

Bizitza ebanjelikoari ekiteko da Jesusek maitekiro egiten digun deia: geure burua Espirituarengan konfiantza beteaz jarritz, honen gidaritza eta laguntzarekin jarrai diezaiogula. Horretarako, geure molde, helburu eta interesak zeharkatu behar ditugu eta Espirituari gure bizitzak gidatzen utzi behar diogu. Ataria igaro ostean, *“zeruko altxorra”* aurkituko dugu, hau da, Jainkoaren mugagabeko maitasuna.

Gertatutako kultura-aldaketek eragin sakona dute guregan, bai gutariko bakoitzarengan bai eliz elkartean eta Ebanjelioa aurreko garaietan bizi izan zuten bezala bizitzea galarazten digute. Horretaz jabetu beharrean gaude. Ebanjelioa, gaur, bizitzako gorabehera guztietan bizitzeak erabakia, bereizketa, kontrastea, laguntza eta Jainkoarekin gure izatearen basamortuan bat egitea eskatzen digu, hau da, bizitza heroikorako gonbiteari bai esatea. Egin ote dezakegu? Bai, eta lehen korrontea alde genuela uste genuenean baino gehiago, Jainkoak ez digulako bere burua gure indarrean agertzera ematen, gure ahulltasunean baizik.

Ez gaude bakarrik eta are gutxiago abandonatuak bizimodu zoragarri honetan. Ondareztat utzi diguten tradizio aberatsa gure aurretik bizimodu hori aukeratu duten heroiez eta heroinez bete dago eta ildoak ireki dituzte horiek lur onean eta Jainkoaren haziak fruitu opariak eman ditu bertan. Ez dira gaur egun arte iritsi den oroipena edo eredia bakarrik; haien eskaintzak, Espirituaren bidez, indarra ematen digu eta gure eskuzabaltasuna sustatzen du.

Abraham, Moises, David, Isaias, Judit, Rut, Ester, Job, Daniel eta zazpi anaia makabearren ama ditugu lagun. Ez Faraoiak, ez Goliatak, ez idoloek, ez Holofenresek, ez Antiokok, ezta historiako botere bakar batek ere ezin izan ditu garaitu. Jesusi gurutzeko porroteraino lagun egin zioten, berpiztu bezala aitortu zuten eta *“hamabiei eta gainerako guztiei”* iragarri zieten Maria eta ebanjelioko emakume santuek lagunduko digute sendo izaten. Oinarri apostolikoaren sendotasuna izango dugu euskarri: Espiritu Santuaz beterik, Jesusen Jainkoari leialtasuna erakustearren beren garaiko botereei bizia emateraino erronka egin

zieten San Pedro eta gainerako apostoluena. Salaketa eta akusazioak jasanez, behin-betiko helburua jadetsi arte bizia emateaz harro, Berri Ona jentilei iragarri zien San Pauloren ardura apostolikoak garamatza gure kultura ebanjelizatzerara. Eta, azkenik, Ebanjelioa bizi eta hots egiteko gure artean Espirituak sustatutako Jainkoaren santu eta santa guztiak ditugu adore-emaile: San Prudentzio, Loiolako San Inazio, Xabierko San Frantzisko, Berriotxoako San Balentin eta Jesusen Bihotzeko Santa Maria Josefa Sancho de Guerra.

Heroi eta heroina hauen guztien gainetik, presentzia berri, apal, txiki eta hauskorra nabarmentzen da eta bere ausardiaz eta bizitzaz zein bide jarraitu behar dugun erakusten digu, horrela Jainkoaren eta bere berri onaren indar askatzailea guregan izan dadin; Nazaretoko neskatxa gazte bat da, eta txunditurik eta Espirituz beterik, bere baietza ematen du, berarengan Jainkoaren borondatea gerta dadin. Haren historia berriz ikustea inspirazio- eta sendotasun-iturri da, gaur gauza bera egiteko:

Handik sei hilabetera, Jainkoak Gabriel aingerua bidali zuen Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena, eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemanana zegoen. Aingeruak, Mariarenean sarturik, esan zion:

– Agur, Jainkoaren gogoko hori! Jauna zurekin.

Hitz hauek entzutean, ikaratu egin zen Maria eta agur horrek zer esan nahi ote zuen galdetzen zion bere buruari.

Aingeruak esan zion:

– Ez beldurtu, Maria! Jainkoak gogoko zaitu. Hara, haurdun gertatuko zara, semea izango duzu eta Jesus ipiniko diozu izena. Handia izango da, Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta bere aita Daviden tronua emango dio Jainko Jaunak. Israel herriko errege izango da betiko, eta beraren erregetzak ez du azkenik izango.

Mariak esan zion aingeruari:

– Baina nola gerta daiteke hori, ez bainaiz gizon batekin bizi?

Aingeruak erantzun zion:

– Espiritu Santua etorriko da zuregana eta Goi-goikoaren indarrak hodeiak bezala estaliko zaitu; horregatik, zuregandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Begira, Elisabet zure lehengusina ere haurdun geratu da bere zaharrean eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinezkorik.

Orduan, esan zuen Mariak:

– Hona hemen Jaunaren mirabea. Gerta bekit zuk esan bezala.

Eta aingeruak utzi egin zuen.

(Lukasen ebanjelioa, 1.go kapitulua 26-38 txatalak)

Kontakizunaren lehenengo datuek pertsonaiak eta beren inguruabarrak aurkezten dizkigute. Jainkoak bidaltzen duen Gabriel aingerua eta Daviden jatorriko Joserekin ezkontzeko hitzemanana zen Maria Nazaretoko Galileako birjina bat dira protagonista nagusiak. Ondoren, aingerua Mariari iragarpen bat egitera sartzen dela esaten digu kontaerak, hau da, bat-batean Mariaren bizitzan sartzen dela eta asaldatu egiten duela bere presentziaz eta agurraz, ez baitu ulertzen Mariak gertaera horren esanahia. Bere bizitzan zehar hainbat bider sufritu behar izan zuen Mariak harridura eta asaldatze esperientzia hori, esperientzia horiek guztiak bere bihotzean gordetzen eta hausnartzen ikasi zuen apurka-

apurka. Ez ote da gure espiritua asaldatzen Jaunaren aingerua gure bizitzetan sartzen den bakoitzean, bizitza horiek aldatzeko esanez, Jainkoaren maitasuna bete-betean izan dadin guregan?

Aingeruaren iragarpenak ez ditu Mariaren zalantzak uxatzen; alderantziz, beharbada areagotu egiten ditu bere beldur eta harridura: gizonarekin bizi gabe, haurdun gertatu eta semea izatea ezinezkoa iruditzen zitzaion eta, gainera, beldur guztiak azaleratzen ziren egoera hori ezkontzeko hitza emana zion Joseri eta bere ingurukoei azaldu behar ziela pentsatze hutsez. Beldur zen zapuztu egingo zutela eta, eta batzuen beldurra sentitzeko arrazoirik, San Lukasen ebanjelio bereko beste pasarte batek kontatzen digunez. Bi datuk bultzatzen dute baietz esatera: Jainkoa da urrats ulergaitz eta arriskutsu hura emateko esaten diona eta, aingeruak diotsonez, *“Jainkoarentzat ez da ezer ezinezkorik.”*

Mariaren erantzunak bere historia aldatzen du, baina baita gurea eta Historia bera ere. Ez da oroipena bakarrik, erantzun eraginkorra baizik gaur ere, gutariko bakoitzari eta Eliza osoari eskatzen zaion erantzuna: *“Hona hemen Jaunaren mirabea. Gerta bekit zuk esan bezala.”*

Jesusen bizitza publikoan, Maria ia ez da agertu ere egiten kontakizun ebanjelikoetan; hala ere, San Joanen ebanjelioak Mariaren bi presentzia erabakigarri kontatzen dizkigu: bere seme Jesusen bizitza publikoaren hasierako pizgarri bezala, Galileako Kanan, zerbitzarietara Jesusek agindutakoa egiteko esanez, eta gurutzearen oinetan. Tradizioak betidanik ikusi du bi une erabakigarri horietan Mariak Eliza ordezkatzeko zuela, Jesus jarraitu beharreko Maisu bezala aurkeztuz eta bere esanekotasun bete erakutsiz eta Jainkoaren aintza aitortuz gurutzearen oinetan.

Birjina hauskor eta asaldatu horrek guztiz askatua ikusi zuen bere burua bere behin-betiko baietzagatik, eta ebanjelioetan jasotzen den gorazarre ederrean adierazi zuen bere poza. Aingeruak dei egiten digu geuri ere, pertsona bezala eta Eliza bezala, geure burua Espirituaren eskuetan jar dezagun oso-osorik, berri ona gaur bizi eta hots egiteari behin-betiko baietza eman diezaiogun, Mariaren poz handiarekin bat eginez:

*– Jaunaren handitasuna dut goستن,
pozaren pozez daukat barrena, Jainkoa baitut salbatzaile.
Bere mirabe ezerez honengan jarri ditu begiak;
horregatik, dohatsu deituko naute guztiek gaurdanik.
Gauza handiak egin ditu nire alde Ahalguztidunak.
Santua da eta gizaldiz gizaldi errukitsua begirune diotenentzat.
Bere indar guztiaz jokatu du: buru-harroak suntsitu ditu,
ahaltzuak goi-postuetaik bota eta ezerezak gora jaso;
ondasunez bete ditu gose zeudenak, eta eskutsik bidali aberatsak;
lagun etorri zaio bere herri Israeli,
bere errukiaz oroiturik:
hala hitzemana zien gure arbasoei,
Abrahami eta ondorengoei betierean.
(San Lukasen ebanjelioa, 1.go kapitulua 46-55 txatalak)*

Iruña eta Tuteran, Bilbao, Donostia eta Gasteiz

2007.eko otsailaren 21a
Hauts-eguna

- † **Fernando**, Iruñako Artzapezpikua eta Tuterako Gotzaina
- † **Ricardo**, Bilboko Gotzaina
- † **Juan Maria**, Donostiako Gotzaina
- † **Migel**, Gasteizko Gotzaina
- † **Karmelo**, Bilboko Gotzain Laguntzailea